

Kruz Azkarate

**Ondorengoak
jakin dezaten**

Bertsoak

Auspoa Liburutegia

315

AZKARATE, Kruz (1916-2008)

Ondorengoak jakin dezaten : bertsoak / Kruz Azkarate ; hautaketa, Joxemari Iriondo. - [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura eta Euskara Departamentua, 2009.

181 or. : argk. ; 20 cm. - (Auspoa Liburutegia ; 315)

LG SS 1122-2009. - ISBN 978-84-7907-624-5

I. Iriondo, Joxemari (1938-). II. Gipuzkoa. Departamento de Cultura y Euskera. III. Izenburua. IV. Saila.

821.361-1"19"

821.361-1"20"

Trankrizpzia: Joxemari Iriondo

Edizioa: Joxemari Iriondo

© edizio honena: AUSPOA Argitaletxea
Gipuzkoako Foru Aldundia

750 aleko tirada

ISBN: 978-84-7907-624-5

Legezko Gordailua: S.S. 1122/09

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

Kruz Azkarate

Ondorengoak jakin dezaten

Bertsoak



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura eta Euskara Departamentua
Departamento de Cultura y Euskera

Donostia-San Sebastián, 2009

Kruz Azkarate Agirrezabal

(Antzuola, 1916-2008)

Gure aittittak Cruz Azcarate Aguirrezabal zituen izen-abizenak, berari Gurutz bezala sinatzea gustatzen bazitzaion ere. 1916. urtean jaio zen Antzuolako Errotaberri errota-etxean, eta zortzi anai-arreba artean bigarrena izan zen.

1944. urtean, Sarasketa baserriko alaba zen Marina Jau-regui Mendizabalekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten. Seme-alaba hauek, berriz, bost iloba eman zizkieten eta hauek aldiz, bi birloba.

Aittittak eta biok, patuak horrela nahi izan duelako, elkarrekin bizi izan dugu nire jaiotzatik helduarora eta bere helduarotik zahartzarorako tartean igaro den denbora, eta urte guzti horretan asko ikasi ahal izan dut berarengatik. Ez da izan niretzat halako libururik.

Betidanik ezagutu dut aittitta okin eta errotari, eta nahiz eta denborarekin hau asko aldatu den nire haren lehenengo oroitzapena, irinez beteriko txapela buruan, koadrozko al-kandora eta mahonezko prakak soinean, eta oinetan alpar-gatak zituen gizon bat bezala etortzen zait burura. Ez zuen, ba, amamak haserrealdi gutxi hartzen aittitta laneko arropa horiekin kalera ateratzen zenean! Baina berari berdin zitzaion. "Zer dauka, ba, horrek?" esaten zuen prakak astintzen zituen bitartean, baina inongo irinik kendu gabe.

Gazte-gaztetatik izan zuen bertsotarako zaletasuna gure aittittak, eta bazkalostean, afalostean eta ahal zuen momentu guztietan saiatzen zen bere zaletasun hau praktikan jar-tzen. Geuk ere ahaleginak egiten genituen familiarteko baz-karrietan berarekin puntuka. Baina inork ezin izan diogu berari jarraitu, eta bere zaletasun hori jaso badugu ere, ber-solaritzarekiko maitasunean bakarrik islatzen da.

Sarritan kontatzen zuen berak behin gertatu omen zitzaiona. Urretxutik deitu zioten nonbait bertso-txapelketa

baten epaimahaian parte hartu zezan. Baina bertara iristean, bertsolari bat falta zela taldea osatzeko, eta berak bete zuen hutsunea. Eta gero, poz-pozik itzuli omen zen etxera, berak irabazi baitzuen txapela, eta “tori, Marina; hemen nire lehenengo txapela eta jornala”, esan omen zion amamari.

Bere bertsotarako zaletasun edo maitasun hori, lanean zebilela ere sarritan praktikatzen zuen. Oraindik gogoratzen dut, Lazkao Txiki pentsu-komertziala zela, aittitta labean ogiak sartzen eta bestea ondoan, nola aritzen ziren elkarrekin bertsotan.

Oso gizon umoretsua zen gure aittitta, eta beti zeukan hark pasadizoren bat, konturen bat edota bertsoren bat mihinaren puntan. Beti prest txantxa eta parrandarako. Bere ahotik ikasi nuen hainbat eta hainbat euskal kanta eta herriko ohitura, eta bere ahotik ikasi baita ere guzti hori maitatzen eta bizitzen.

Gaztetan herriko saltsa guztietan aritu ohi omen zen, hau da, dantzan, antzerkia egiten, eta kultur arloan antolatzen ziren ekintza guztietan. Bera izan zen Trekutz izenez ezagutzen den elkartearen sortzaileetako bat. Nik, berriz, bera izan nuen, oraindik oso txikia nintzela, dantzako nire lehen maisua. Sukaldean aritzen ginen biok, arin-arin eta fandangoa nola egiten zen ikasten, eta berak esan ohi zidanez, pauso guztiak baldosa batetik atera gabe egin behar ziren. Makinatxo bat barre egiten genuen gero eta gero ere, bere gazte-denborak gogoratzean dantzan hanka nola eta noraino jasotzen zuen azaltzen zigun bakoitzean. “Sast!, belarri ostera”, esaten zuen. Eta umore hau, dantzarako, kantutarako, kontutarako, mozorrotzeko... bizi izan zen arte guztian izan zuen. Inauteriak iristen zirenean, hor azalduko zen gure etxeko sukaldean pelukaren bat, eta bera izaten zen peluka hori probatzen zuen lehena. Ilea mozten nionean ere, nik nahi nuen guztia egiten uzten zidan; eta, nola ez, ederki pasatzen genuen modelo ezberdinak probatuz. Eskerrak ile askorik ez zeukanik!

Aittitta bere lagunen oso laguna zen, eta jendearekin egotea asko gustatzen zitzaion. Larunbatetan, lana bukatu eta pare bat txikito hartzera ateratzen zen, eta gero etxera itzultzea

ahaztu egiten zitzaion askotan, guztiok bazkaltzeko bere zain geunden bitartean. Egun baten gure amamak plater gainean txokolatzeko bokadiloa jarri zion arte; baina bera haserretu beharrean edota bere errua onartu beharrean, "Jesus, ez da horrenbesterako!" bat esan eta zegoena jaten zuen, isil-isilik.

Oso laguna zuen Joxe Mari Gabilondo (Behekorrota), eta bera aittitta baino ondotoz gazteagoa bazen ere, ia egunero berriketaldi ederrak eta majoak egiten zituzten Aitz-Garbi tabernako mahaian lasai eserita, batetik bertso-kontuak zi-rela edota beste edozein gairen inguruan berdin. Larunbate-tan, hain berandu etxera itzultzen zenean hori esaten zuen: "Bai, Behekorrotakin juntau naiz ta..."

Gizon azkar eta oroimen handikoa zen gure aittitta. Eta horrela kontatzen zizkigun herriko gertaera ezberdinak, bere gazte-denborako kontu zaharrak, gerra-garaian pasatutako penak eta pozak, guztiak... Gure etxeak, errota-etxea izanik, kontu ugari zuen gerra-garaian, eta ondoren bertan gertatu-tako guztiaz ere beti zegoen pasadizoak kontatzeko prest, batere nekatu gabe.

Azkenean, 2008ko abuztuaren 30ean hil zen, 92 urte zituela. Eta hura hiltzean, altxor maitagarri bat galdu dugula uste dut: pertsona ona, euskaldun jatorra, jakituria askoko gizona, eta aittitta ezin bikainagoa. Fisikoki ez zen gizon handia, baina bai gure izakeran eta bera ezagutu zuten guztien bihotzetan zerikusi handia izan duena.

Belen Azkarate Egaña



Gurutz eta Mariñe elkar maiteak.

Nere gogua zer dan adierazteko, esan nai nuke asmo bat artu dedala: Orain arte izparringietan naiz enkarguak emanik jarri ditudan bertsoak, guztiak ez dira errez izango baiña al ditudan guztiak bildurik ementxe idatzirik jartzea. Asko geldituko dira aizeak eramanda, eta beste asko paperak galduta. Baiña zerbait idazten badet, naiz eta balio asko ez izan, ortxe geldituko dira ondorengoak jakin dezaten zer egin nuen.

Nere emaztearen eriotza

2000ko azaroaren 10ean, infarto gogor bat eman ondoren, Gasteizko klinikan il zitzaigun ainbeste maite genuen gure Marina gaixua, nere emaztea.

Bera ilda gero bere argazkiaren atzean bertso auk jarri nituen, betiko nere aitormena egiñaz:

Emazte maite, zuk bete dezu
daukagun eginkizuna;
eskertu nairik gaur natorkizu
eindako laguntasuna.
Baiña orain zein bakardade
tristean utzi nauzuna!
Iñortxok bete ezin dezake
zuk utzi dezun utsuna.

Ezkontza-bidez elkartu giñan
biok maitasun senduan,
ta berrogeita amasei urte
pasa ditugu munduan.
Or zero ortan txokotxo on bat
zuk aurkituko zenduan,
laster or naiz ta leku pixka bat
gorde zaidazu onduan.

2000ko azaroan, 80 urte zituela hil zen
Marina Jauregi Mendizabal.

Gero, 2001eko azaroaren 11n izan genuen gure Marina-
ren urteurreneko meza. Bere argazkiarekin atera genitun
tarjeta batzuk, geure artekoei banatzeko, elizkizuna aditzera
emanez. Argazkiaren atzeko aldean bertso auxe jarri genuen,
baiña gure billoba Belenek egindakoa da, eta oso polita
gaiñera:

Joan ziñaden orain urte bat
guztiok emen utzirik;
ez dago iñor zure lekua
iñola beteko dunik.
Gure artean izango zera
zu betirako bizirik.
Zaindu gaitzatzu famili dena
orain or goiko zerutik.

Antzuola, 2001.11.11



Gurutz hegazkinetik jeisten.

Altzarteko errota barria

Gure errota au noizkoa dan garbitasunik ez dago; bertan bizi diranak, elizan arkitzen diran liburu zerrendatetik ikusten denez, Azkarate apellidoak jarraitu du bosteun urtetik onuntz. Etxe onetan bizi izan dira, eta euren bizibide nagusia errota izango zuten. Ikusten da errota au urte oiek baiño aurreragokoa dala.

Leenago Altzarte izenez jarraitu zuen eta, esaten dutenez, ujdolderen batek ondatu eta zerbait aldatuz barriztatu, eta Errotabarri izena jarri zioten. Au gure aitonen ezaugarria baiño leenago gertatua da.

Errotaren erosketa

Errota onen jabea edo nagusia Berroeta jauna zan, eta gure aitonak izan ziran orain eun urte pasa errota erosi zutenak.

Orduan ere, oraintxe bezelaxe, dirua falta, ordea. Eta, erostea nai, baiña dirua nola zuzendu? Nunbaitean eskatu bear eta Bastarriña baserrian eskatzea pentsatu omen zuten, eta artarako “Animas” deitzen zioten gizon ezaguna bialdu zuten ea zerbait agintzen zien. Alaxe, joan da Bastarriñara esanez Errotabarrikoak etxea erosteko diruaren billa nola bialdu zuten, eta eurak pentsatzeko, baiña zulo aundiegian sartuko ote ziran pentsatzen zuela berak, eta oso segurua ez ote zan izango dirua ematea aieri. Ala ere, modu orretan egin arren eskari ori, zerbait emango ziela beintzat.

Gero, gure amona Teresak grazi ederrarekin kontatzen zuen pasadizo au, eta onela esaten zuen:

–Enbajadore ederra biali genuen diru eske!

Gero, Bizkaitik etorritako “Aingerua” aitatzen zuten. Goiz artan or dator, buruko moiñoan pañueloa eta besoan zesto baltz bat zuela atso bat, esanez etxea erosteko diruaren billa zebiltzala eta nai bazuten berak emango ziela. Auxe izan omen zan zerutik jaitsitako aingerua; eta orrela erosi zituzten errota-etxea eta inguruko terrenoak, irurogeita iru milla errealean.

Errotaren situaziñua

Errota onek, presa egíñez pareta zuen errekan, eta muro baten bitartez zuen sarrera urak zulo batetik. Zulo orri uratea deitzen genion.

Urate onetan olez egindako tapa bat bere barreta trabesko batek gurutze egiten ziola, uraren sarrerako tamaiñua artzen genuela. Eta gero, kanal estu baten sartu eta an ere esola batzuk jarrita egoten ziran urak zekarren zikiñik aundiena bertan geldiarazteko. Ondoren, kuba deitzen genion deposito bat; eta azkenik, aldapa deitzen genion urtegi bat, urak estutuz eramaten zuena bi zulotara.

Orrek ziran errota erabiltzen zuten irteerako zuloak. Eta zulo orretatik irtetzen ziran bi tubo, bakoitzak bere tapa zuela. Eta bertatik irtetzen zan urak erabiltzen zuten rodete baina axenixa esaten genienak. Beren tirante eta barretaren bitartez errotatik tamaiña artzen zitzaien.

Rodete oneek dute eje bat, txabela eta tuerkaz berari ondo elduta, eta bere barrenean zulo baten sartuta dauka txori esaten zitzaiona; eta buelta ematen du kuadro ortarako jarrita dagoen zulotxoan duen opillean.

Opilla deritzon kuadroko pieza au egoten da sujetatuta trabes jarrita dagoen egur batean; eta egur au tirante batzuekin errotatik mugitzen da, arria gora eta beera erabiltzeko.

Rodeteak duen ejeak jarraitzen du azpian geldi dagoen arria baiño goraxeago; eta txabeta bere puntan duela jartzen zaio kabezal bat, eta emen ajustatzen da gaiñean buelta eman bear duen arria.

Geldi dagoen arriaren erdiko zuloan dago burdiñezko plaka sendo bat, ejearentzako zuloarekin, eta nola ejeak burniarekin rozatu bear ez duen, burni onek iru kanal ditu; eta kanal oietan jartzen dira egurrezko kuadroko piezak. Eta onela, ejeak egur oien kontra egiten du buelta eta jira.

Bitartean, isteko jartzen zan kerrua edo segua, eta segurtatzen genuen beintzat errotapera alerik ez joatea. Au nabaitzen genuenean, berriro kerrua eta segua jartzen genuen.

Urte askoan ikusi genuen errota onela. Eta eskerrak noiz-bait “juego de bolas” jarri eta lasaitu giñan!

Errotako uraren zarata

Egun baten mediku jauna etorri zan gurean norbait ondoezik zela-ta. Errekan ur asko zan, eta presatik bera jaus-tean ur-zarata aundia etxean, eta onela zion:

–Ur-zarata onekin nola egiten dezute lo?

Eta gure aita zanak onela erantzun zion:

–Ur-zarata onekin lo lasai egiten dogu; zaratarik ez dagoanean, gaizkixego.

Medikuak, arrazoi onen zergatiak jakin nairik, berriro galdetu omen zion:

–Baiña, nola?

Eta gure aitak orduan:

–Ara, jauna: presan beera zarata aundiarekin ura dijoanean, señalea da ura naikoa dagoela errotarako, eta egun guztian errotarriak erabili daitezkeela, eta lasai joaten gera lotara. Ur-zaratarik ez dagoanean, berriz, ura aprobetxatu egin bear eta gabian bi edo iru aldiz jeiki bear. Noiz egin dezakegu lo obeto?

Medikuak ere arrazoi eman omen zion.

Errotarriak

Errotarriak oso ezberdiñak dira garia eotzeko eta artoa eotzeko.

Gariarenak oso errotarri gogorrak dira, azpikoa ez ainbeste, baiña gaiñekoa marmol gogorraren pare izaten da.

Ni gaztea nintzala, bein baiño geiagotan ekarri zuten lan-tegi orretan ibiltzen zan arri-pikatzaillea. Eta gariaren arria pikatzen zortzi bat egun egiten zituen, baiña bai ondo pikatu ere arria.

Onek asko abonatzen zuen gari-errotaren gaiñeko arria. Izan ere, au sei bat pusketaz osatua baitzego, eta denak

masarekin bilduta arri bat bezela egiñak. Orain ere ortxe dago arri oietako bat asko gastatu gabe.

Artoa eotzeko arria, berriz, oso biguna da, eta alaxe izan bear du artairin ona egiteko.

Artoa ondo eotzeko, ondo igartuta egon bear izaten du. Eta sarritan basarritarrak ondo igartuta dagoen ustean eze samarra igual ekartzen du, eta auxe izaten da errotariarentzat amorragarririk aundiena.

Sarritan gertatzen da, eotzen ari dala, arriari pegatzen asten zaiola, eta konturatzen danerako, alako anillo bat bezala buelta guztian jartzen zaio arriari, alerari pasatzen uzten ez diona. Oni oretzea deitzen diogu.

Eta berriro lanean asteko arriari buelta eman eta pikarekin joaz oreka kendu bear izaten zaio, peatuta dagoena garbituz. Eta lan dexentea izaten da au. Orregatik da errotariaren amorragarria.

Leen errota asko ziran Antzuola alde onetan, zortzi edo bederatzi bai gutxienez; eta bakoitzak bere bezeroak edukitzen zituen. Oietako batzuk eurak errotara etortzen ziran, baiña beste batzuei baserrira eramaten genien iriña.

Arrandain bi etxetan lau bizitza zeuden, eta naikoa urrutiko gaiñera. Nik amalau urte nituen arte morroia edukitzen genuen, baiña gero neu ibiltzen nintzan zaldi malapartatu batekin lan orreek egiten.

Arrandiara astean bi biaje egiten nituen, eta beste baserri batzuetara ere bai. Berriz urrengo astean eramateko zorruak ipintzen neuk laguntzen nien, eta orrela Arrandainen troka batetik balde batekin botatzen zuen zakura garia, eta nik lotzen nion muturra; eta zaldian kargatu, bota errotan eotzeko kajara eta... alerik ez korritzen. Ondo begiratu zer gertatzen ote zan, eta gazta eder bat alearen zuloa isten¹. Nonbait, gazta ondo gordetzeko gari artean zeukaten sartuta baserriren batean, eta begira zer pasatu zan.

¹ Baserrietan oitura zan gazta zaarra garitan gordetzekua.

Beste errotari bat ere olatsu ibiltzen zan: Txanbolingo Markos, ain zuzen. Oni gustatzen zitzaion taberna baten, Pedronekoan, kuartillatxo bat edatea. Eta astoa uzten zuen tabernaren kanpo aldetik lotuta. Baiña egun batean gazte batzuek astoa-rekin errukituta, ainbeste denboran kargatuta ikusirik, katetik askatu eta etxera bidean jarri zuten. Ez zegoen oso urruti eta bidea ere ondo zekienez, Markos tabernatik atera zanean, astoa falta. Eta bakar-bakarrik joan bear izan zuen etxera.

Beste batean ere alatsu pentsatu zuen, tabernan gelditzea alegia. Baiña egun artan katea leiotik barrura sartu eta bere maaiari lotu omen zion. Ardoa edanez, beti ere bere kateari begiratuz, ala esaten omen zuen:

–Gaur emen ago orratik, nere asto maitia.

Ala, kuartillatxo ori edanda atera zanean, seguru bere astoa an izango zalakoan, or aurkitzen da egun artan ere gazte oiek kabestroak astoaren burutik atera eta bere katea antxe utzirik astoa etxera bidali zutela.

Gerra-ondorena

Gauzak eta janariak justutzen asi ziranean, asi ziran gari, arto, babarrun eta janari askoren loturak, eta baita errotan garia eta artoa eotzen ere.

Zerbait leentxeago errotariak izan zuten aukera beren errota *makillero* edo *arinero* klasifikatzeko. Errian bi errotari geunden panaderia genuenak: Antiguakoa eta gurea.

Gurera etorri ziranean nola nai genuen jartzea eta abar, esan ziguten nola Antiguakoak *makillero* jarri zuten, eta guk *arinero* jarri bearko genuela, eta alaxe jarri genuen.

Gero damututa egon giñan, bada, guk askoz papeleo geiago egin bear genuelako besteak baiño, eta aldatzekotan ere egon giñan.

Baiña nola or etortzen dan ordena bat, errota makillero danak isteko, eta garia eta artoa irin-fabriketan eta errota arinerotan bakarrik eo bear zala. Ala, asko uste gabe, egiñaala baiño geiagorekin aurkitu giñan.

Ura naikoa zegonean, zerbait; baiña sarri ura falta izaten genuen, eta zerbait egin bearra zegoen. Ala, joan nintzan errotak jartzen ibiltzen zan Paulino Gaztelungana; eta etorri eta ikusi ondoren, aurkitu zuen motor batekin arriak arabiltzeko modua, urik ez zegoenean. Arrezkero makiña bat gari eta arto eo genuen. Gure gari eta arto-errotak ez zuten geldi egoteko egunik izan urte batzuetan.

Errikoaz gaiñera, San Prudentzio, Oñati eta inguruetatik makiña bat arto eta gari eotzen zuen gure errotarriak.

Zaldi malapartatua

Gure zaldi malapartatu onek ere merezi du zerbait aipatzea.

Gaiztoa bezin gogorra zan; arraro xamar ikusten nuen, naiz eta ondo kargatua egon, gaiñean jarri eta ala menderatzen nuen.

Gerra-garaia zan. Frankoren soldaduak inguratuta zeuden, eta miliziano batzuk etorri zitzaizkidan esanez nik zaldi bat banela eta kapitana frentera eramateko bear zutela. Jakin zuen medikuak silla bat bazuela, eta ala ekarri zidaten. Lotu nuen silla ori, eta ala joan ziran. Baiña or datoz bereala aginka egiten zuela eta muturrean jartzeko ari sareak ere. Sare ori jarri nion zaldiari, eta an joan ziran berriro. Baiña andik laster norbait etorri zitzaidan esanez gure zaldia frontoiko zelaian larrean zebilela. Joan eta ekarri nuen, eta sartu bere asto-etxean.

Gero jakin nuen Idala-Torren gora zijoala kapitan ori zalapartaren bat egiñez lurrera bota zuela, eta pistola atera eta il egin bear zuela-ta ibili omen zala. Zaldi au neuk bestek ez zuen menderatzen. Eta alaxe salbatu zuen bizia.

Ala ere, nik soldadu joan bear izan nuenean lotuta utzi nien, norbaiti eman edo saldu arte. Alaxe, tratante bati eman zioten, eta eramaterakoan errebelde xamar ikusita, ala esan omen zion:

-Zer uste dezu, errotariarekin zabiltzala ala? Nik otsanduko zaitut, aixkidia!

Eta olaxe eraman omen zuen.

Andik puska batera, berriro Antzuolara etorri zanean, eta gure amak galdetu zionean zer moduz zaldiarekin, ala esan omen zion:

–Bitxo ederra eraman nuen, zerbait otsanduko zalakuan kapatu nuen (enteroa baitzan), eta nonbait berandu izan eta akabatu egin zitzaidan.

Gixajoa!

Makiña bat komeri

Bitarte orretan makiña bat komeri izan genuen, bai.

Baserritarrek zenbat area erein zuten, zenbat artu zuten eta zer famili zeuden aditzera eman bear izaten zuten, eta gero kartilla bat ematen zieten, agiriz zenbat gari eta arto eo zezaketen errotan, eta zenbat entregatu bear zuten. Kartilla au artu arte ezin izaten zuten garirik eo, eta guri ere ez ziguten baimenik ematen kartilla au eskuratu arte.

Garia artu eta baimen au ematera denbora luzea izaten zan, eta bitartean jan egin bear, eta guretzat konpromiso aundia izaten zan.

Errotarria prezintatu egiten ziguten baimen au eman arte; baiña baserritarren egoera ura ikusita, tranpa pixka bat egin bear izaten zan prezintoarekin, eta gabaz egiten genuen lana bitarte orretan.

Ala aritzen giñan; baiña ez dakit txibatazoren bat izan zan ala, gau batean, goizeko iruretan atea jo zuten gurean, eta baserritarren bat gariarekin izango zan ustean atea zabaldu nuenean, or sartzen zaizkit bi guardia zibil, eta zuzenean errotara.

Baserritarrei mesede txiki bat egiteagatik multa pagatu ostean, iru illabeteen errota itxita eduki bear izan genuen.

Sarri, gabeen errotan erabiltzen genuen Angel Lamañaren zai geunden, eta goiz artan amak, oetik jeiki zanean, galdetu zidan:

–Ez al da etorri Anjel?

Eta nik erantzun nion:

–Ez, Angel ez da etorri. Anjelituak izan dira etorri diranak.

Andik aurrera, guardia zibillari “anjelituak” deitzen genien.

Okindegian ere erabiltzen genuen naiko lana. Izan ere razionamentuan ematen zuten zerbait, baiña oso gutxi; eta jendeari zerbait emateko, garia estraperloan erosita egin bear izaten genuen gaiñetiko ogia. Nola dana debekatuta zegon, modu askotara ekarri bear izaten zan garia: kamioietan kamuflatutako deposituetan, batez ere. Nola lastoa ere saltzen genuen, lasto-fardo barruan ogei bat kiloko zakutxoak ekarzen zizkiguten gariarekin.

Bein, Aristi baserrian ustu genuen, transformadore aundi bat balitz bezela preparatutako ontzi bat, barrua dena ueko zuela, baiña dana gariz ondo beteta.

Kontuz eta bildurrez ibiltzen giñan gari onekin. Baserritarren kartillekin zerbait baliatzen giñan gari oiek legalizatzeko, baiña liburuan jarri bear izaten genuen zenbat gari geneukan almazenean, eta or ibiltzen giñan larri eta estu, batzuetan liburuan baiño geiago edo gutxiago geneukala aitortuz.

Ala, une batean gertatu giñan liburuan baiño askoz ere gari gutxiago geneukala. Esate baterako, liburuan amar milla kilo, eta almazenean milla bakarrik. Eta inspektorea etorri ezkerok galdurik aurkitzen giñan, baiña liburuan gutxiago jartzerik ez genuen nai iñola ere, laster gari partida espero genuen-eta, orduan liburukoarekin berdintzeko.

Eta zer egin? Nere anai Fernandok eta biok alaxe pentsatu eta egin genuen: Almazenean tablaz egindako kaja aundiak genduzkan, baiña ia utsik denak, leen esan bezala. Kajak altura dexentea zeuken. Alaxe, bere goi aldean egin genion pisu bat bezela tabla batzuekin, eta zaku uts batzuekin zirriztu guztiak ondo tapatu. Gero gari puxkat gaiñean bota eta jarri genuen kaja guztia gariz beteta balego bezela.

Gaiñera, lan onek eman zuen bere frutua. Ori eginda egun gutxira etorri da inspektorea, eta liburuak ikusita gal-

detu zidan ea gari ori nun genuen. Eta eraman nuen almagaz artara, erakutsi nion kaja, eta liburuan geneuzkan kiloekin ontzat eman zuen an ikusi zuena.

Garai artan alaxe ibilli bear izaten genuen, bildurrez eta ausardiz.

Urte batzuk ola pasatu ondoren gauzak joan ziran puska bat normaltzen, eta industriak indarra artu zuen emen ere. Jendea kaleko fabriketara sartu zan lanera, eta berari esker, baita baserrietako gaztiak ere, maiorazkoak tartean zirala.

Baserritarrak kaleko soldatarekin poztu ziran, eta utzi zioten gari eta artoa ereiteari. Leen soro ziranak belardi utzi-rik, ganadu batzuekin obeto moldatzen ziran, eta orrela errota guztiak lanik gabe gelditu giñan.

Ori izan da motiboa errota guztiak itxita gelditzeko. Bate-ren bat geldituko da museorako, eta leku askotan esango dute: emen errota bat izan zan.



Errota zahar maitea.

Baserritarra eta pentsu-saltzaillea

Pentsu-saltzaillea:

Arratsalde on, lagun jator ta
erostailletan pijua,
pentsu ederrak ekarri eta
eskeñitzera nijua.
Beti entzuna diat dekala
Txekor- bei talde majua...
Oien mendean beti or abil,
lagun zar gizarajua.

Baserritarra:

Eure partetik, nere laguna,
badek naiko borondate;
prezio ortan dekan pentsurik
nik ezin erosi bate.
Erosi gabe bentajarik ez,
eta erosita kalte;
ganadu auek aspaldi ontan
txoraturikan naukate.

Saltzaillea:

Ikusten diat or abillela
sekulako ixtilluan,
baiña dirua eduki nai dek
dena gorderik pilluan,
bate pentsurik eman gaberik
ta indarra akuilluan.
Modu orretan ezin eduki
bei gizenak ukuilluan.

Baserritarra:

Ori esaten etorri al aiz,
pentsu-saltzaille lerdena?
Ik ondo dakik baserrietan
zer gauza dan bearrena:

Esne-saria jaso dezaten
gobiernuak ordena...
Bestela ni're laster baniaik,
or geldituko dek dena.

Saltzaillea:

Txekorrentzako pentsu ori dek
askok dutena nonbratu;
esne-beientzat ere badala
ez al aiz, ba, konturatu?
Esne-saria ere zerbaitxo
egiña ditek goratu.
Txekor-bei oiek abetoago
bear dituk gobernatu.

Baserritarra:

Erosi bear degun pentsuak
preziua ona neurri,
eta sarritan bear deguna
sortu ezin, edo urri.
Geuk saldu bear degunai, berriz,
bestek preziuma jarri.
Txekorrak ere bajatutzeko
eurak kanpotik ekarri.

Saltzaillea:

Gauza onetan arrazoi asko
dezute baserritarrak;
saldu eziñik ikusten dira
txekor gizen ta ederrak.
Baiña guretzat bentajarikan
ez dik ezer zuen txarrak.
Tablatan lengo preziuetan
ematen dizkitek xerrak.

Baserritarra:

Eskatutako dena pagatu
nai badegu erostea,

saltzea berriz preziuetan
naiz ta geiago kostea.
Baserritako bizimodua
dek latza eta tristea.
Ez zait txokatzen, ez, oraindik
etxe geiago ustea.

Saltzaillea:

Beldurgarrizko illuntasuna
dute trumoi ta ekaitzak,
baiña ez dira sarri izaten
era ortako langintzak.
Ez itzak entzun txorakeritan
esaten diraden itzak.
Baserritarra goratuko dek,
ik bertan lana egin zak.

Baserritarra:

Ori aditzen zemakit, lagun,
etzekiat zenbat urte;
nagusi geran uste asko ta
maizter izanak aparte.
Esperantza au leku danetan
beti ematen digute;
nik galdera au egingo nitek:
baiña, gizonak, noiz arte?

Saltzaillea:

Bertso onekin bukatutzen det
nere oraingo jarduna,
naiz ta gaurkuan lortu ez izan
iri saltzea nai nuna.
Baldin ez ba aiz gelditu orain
nerekin oso illuna,
beste batean juntatu eta
egin bear al deguna.

Baserritarra:

Nai dekanian etorri adi,
ni beti niok konporme;
eta kaletik ekarri itzak
nai dekan ainbat informe.
Edozeiñekin itz egiteko
gu beti gertu gerade.
Pentsu merkerik ekartzen badek,
al dan azkarrena obe.

Bertso auk Donostiako *La Voz de España* izparringian argitaratu ziran, Iñaki Eizmendi “Basarriren” *Mi Atalaya Montañera* saillean, 1975eko otsailaren 2an eta 4an.



Gurutz eta Julian bertsotan.

Trekutz txabolari buruz

Irimo mendi deitzen dioten
gailurraren barrenean,
bere itzala sarri egiten
arbola batzuk aurrean.
Iturritxo bat ur ederrakin
ere badauka urrean:
Trekutz deritzan txabola dago
oso leku ederrean.

Ogeita bost bat urte dirade
txabol orren inguruan,
kuadrilla batek egun eder bat
antxe igaro genduan.
Umore onez kontu ta kantu
bazkariaren onduan,
alkartetxo bat egin zeikela
sortu zitzaigun buruan.

Ia ordurik galdu gaberik,
bizi urrengo goizian,
bear ziraden eskabideak
egiten asiak zian.
Baimena ere eman ziguten
bear zan leku guzian.
Trekutz izenez jarri giñaden
gure plaza nagusian.

Txabola ortan nola dagoen
alkarte onen sustraia,
al degun eran bera zaindutzen
guztiok gerade saia.
Aurrera ere auxe litzake,
bai, alkarte onen naia,
naiz ta mendian tartean izan
jende gaizto ta lasaia.

Orain amar bat urte dirala
nola zegon txabol ori?
Ikusi zunak ez dauka bate
galde bearrik iñori.
Ormak erortzen, teillaren faltan,
ta itokiña ugari...
Goi-agak ere usteldurikan,
laster bear zun erori.

Txabola ori ala ikusiz
guztiok artzen genun min;
erabakia artu genuen
zerbait bear zala egin.
Gure artean nola diraden
bai arotz eta bai argin,
guztiok gertu lan egiteko
txabola berritu zedin.

Goiz goizetikan lan egiteko
gogo bizia zan sortu,
mortero onez orma guztiak
ondo giñuzen gogortu.
Teillaz berritu, kapirio, ol,
goi-aga berriak sartu.
Txabola polit baten itxura
gaberako zuen artu.

Iñorentzako eragozpenik
ez genun jarri atean,
eta zabalik guztientzako
naiz jaietan, naiz astean.
Bere alboan idatzirikan
ikusten da irixtean:
“Tu refugio” alde batean,
“Zure babesan” bestean.

Berriro ere ikusirikan
malkoak datoz begira:

orma-arriak atera eta
teillak badatoz erdira.
Bere gaiñean ume batzuek
dantzan ibilliak dira,
ta gurasoak, au da txarrena,
aurrean lasai begira.

Penagarria dago benetan
txabola orren barrena;
ura apurtzen ibilli denak
du biotzik gogorrena.
Mendi gaiñean txabola degu
gauzarikan ederrena;
mendira nola joan liteke
ortara dijoarena.

Zure babesa eman diezu
zuk sarri ta ainbesteri,
naiz langille ta naiz mendizale,
naiz artzai ta naiz eiztari.
Beste batzuek ardura gabe
bere gaiñean jostari;
askotxo nunbait gozatzen dira
kalte egiñez besteri.

Alkarte onek zillar-eztaiak
daduzka aurtengo ontan,
eta berriro bere begiak
jarririk txabola ortan.
Borondaterik onenarekin
txukundutzeko gogotan,
baiña ez bedi berriro izan
berdiña gertatzekotan.

Trekutz izeneko txabolari buruz jarri nituen bertso auek,
eta Donostiko *La Voz de España* izparringian Basarriren *Ata-
laya Montañera* saillean argitara eman ziran, 1975eko mar-
txoaren 5ean eta 6an. *Goiz-Argi* astekariak, berriz, 1975eko
martxoaren 26an ekarri zituen.

Trekutz, urteko ibilaldia

Lendabiziko geldilekua
izango degu Pasajes,
oso aitua gure artean,
erri polita izatez.
Iñortxo ere ez da aspertzen
alde orretara juatez.
Portu galanta ere badauka,
txit egokia paisajeaz.

Gosari pixkat an egiteko
izango degu astia;
gorputzari're komeni zaio
zerbait indartzen astia.
Egun eder au noiz etorriko
pasatzen degu astia;
umore baten bildu gaitezen
jende zar eta gaztia.

Nola pixka bat poztuko gaitun
danok amarretakuak,
gero portura joango gerade
ikusitzera barkuak.
Eder askuak izaten dira,
ta leku askotakuak.
Asko utsikan kargatutzera,
beste asko kargatuak.

Españia len Rusiarekin
beti zebillen muturka,
ta orain berriz, ikusten danez,
artu-emanada daduka.
Ango barkuak etortzen dira,
au iñortxok ezin uka,
bistan dutela bandera gorri,
igitai eta mailluka.

Ordu erdi bat pasako degu
aitatu degun errian;
denbora degu erlojuakin
gauz bat egin biarrian.
Gorputza arin, biotza alai,
bakoitzak bere neurrian;
gero Donostin sartu gaitezen
alaitasun ederrian.

Dударик gabe Donosti ortan
joko degu Parte Zarra;
an bai aukera izango degu
edateko zirri-zarra.
Bateren batek naiago badu
ikusi nesken izterra,
Kontxa aldian apestaturik
daduka plaia bazterra.

Bakoitzak berak nai duen eran
ase dezala gogua;
baiña baitere goguan artu
emandako agindua.
Plaiara juan edo, nai badu,
edan txikito mordua,
guztiok zaindu an irtetzeko
jarriko degun ordua.

Urnietara izango degu
Donostiatik irtera,
Antzuolako alaba batek
duen taberna batera.
Jan ta edanik ez da faltako,
nijoia ni esatera,
baiña bakoitzak zenbat bear dun
aurrez kontuak atera.

Bazkalondoan kantu ta dantza
uste det ez da faltako,

dударик gabe egun au degu
aukeratua ortako.
Bateren batek bertso batzuek
ere dituzte botako,
abildadiak izaten dira
era guztietarako.

Ondorenian juango gerade
berriz Donosti aldera,
“Peligrosua ez da izango?”
egin digute galdera.
Nere ustetan edadez denok
ondo osatuak gera;
gure Donosti maitagarrian
galdu egingo al gera?

Teatrorra jun nai dunak ere,
gose duenak apaldu;
ala nai dunak plaia ertzean
itsas-ondua zapaldu.
Denok alkarrez ondo konpondu,
umorerrikan ez galdu;
bear bezela eta gizonki
leku danetan azaldu.

Al dan onduen alegin zagun
denok pasatzen denbora;
Trekutzek duen izen jatorra
denok jaso zagun gora.
eta irtetzeko degun ordua
denok dezagun gogora;
bera pasata ez datorrena
Donostin geldituko da.

Trekutz alkarteak urtero ibillaldi bat antolatzen genuen,
urte orretan ni ere ibillaldi ortako komisioko izanik. Bidean
gindoazela bertso auek kantatu edo irakurri nizkien lagunei,
nundik eta nola izango zan adieraziz. Gero, *La Voz de España*

egunkariko Basarriren *Mi Atalaya Montañera* saillean argitaratu eman zituzten, 1977ko irailaren 25ean.

Azkenengo bi bertso auek ez zituen ekarri leen aipatutako izparringi orrek, leku faltaz.



Gurutz bertsoan.

Gure sokatiralariak

Urte aietan Antzuolan sokatirako kuadrilla oso ona zegoen, eta leku askotan irabazi zituzten txapelketak. Baita sari eta kopa ugari ere. Jubilatuen tabernan dago bitrina bat kopaz beteta, sokatiran irabazita.

Truzios-en (Bizkaia) jokatu zan Euskadiko txapelketa, zortzi laguneko 640 kilotan talde bakoitza; eta Antzuolako kuadrilla izan zan irabazle saio gogorrak egin ondoren. Oni buruz bost bertso jarri nizkien, eta 1979ko azaroaren 13an *El Diario Vasco* izparringian etorri ziran, Basarriren *Atalayan*.

Euskadiko txapelketa
aurten sokatiran,
Truzios-en izan da
bi jaitan segiran
jendetza ugaria
zutela begiran.
Antzuolatarrak txapeldun
an atera ziran.

Maixu talde ona, ta
indartsu gazteak;
ontan ere balio
baitu ikusteak.
Ta orain txapelketa
au irabazteak
ez gaitu jarri denok
oraintxe tristeak.

Erriaren izena
zabaldu dezute;
al dan artean goian
eutsi zaiozute.
Euskadiko txapela
zuek daukazute.
Zorion beroenak
artu itzazute.

Kopa aundi batekin
etorri ziñaten,
bertatik nai zunari
emanez edaten.
Saiatu aurrera're
guztia ematen,
erriaren ixpillu
nolatan zeraten.

Kopa ori daukagu
orain guk aukeran,
portatu diralako
Bizkaiko billeran.
Bertatik bear degu
alkarturik edan,
errian onerako
indartutzen geran.

Bertsoen ondoren Basarrik berak bere kontura au idatzi zuen bertsoak periodukuan argitara ematean: "Atsegiñez eman diet toki zure bertso politeri. Gurutz, zure bertsoak azken zoragarria dute, batez ere: "Errian onerako indartutzen geran..."

Tomas Madinabeitia

Errian parroko genuen Tomas Madinabeitia Zairera mi-
xiolari joan zitzaigun. Erri guztiak pena aundia artu zuen,
erri guztiak maite baitzuen. Eta errian egin genion despeiran
irakurri nizkion moldatu nituen sei bertso auek.

Gurutzeberri gaiñean dula
Mendiolako auzoa,
ango semea zera, don Tomas,
eta famili osoa.
Amabi seme-alaba batetik,
zazpik Kristoren lazoa;
danei begira txoratzan dago
zuen amatxo gaixoa.

Lau urte dira erri ontara
etorri ziñan gugana;
ikusitzen da urte gutxian
emen egin dezun lana.
Ume ta eldu, zar eta gazte,
berdin esan, erri dana.
Zuk dezun doai berezi orrek
eraman gaitu zugana.

Premi dunari lagundutzeko
beti egon zera gertu,
zure bearra zegoen tokian
zintzo ta umil agertu;
aldrebesturik zebiltzan zenbat
bide onera biurtu.
Orain batera bear zaitugu
eskertu eta agertu.

Gorrota zenun anaiok alkar
eduki oi degun griña,
maitasunera denok ekartzen
egin dezun alegiña,

eliz barruan zeinēn ederki
erakutsiaz dotriña;
eta bertatik ateratzean
ziñan guztion berdiña.

Mixiotara joateko orain
dadukazu desiua,
oraintxe nunbait Zaire aldera
joateko okasiua.
Beltzen animak zuretzat berdin
dadukate baliua;
euren artean zabaltzea nai
Kriston Ebanjeliua.

Zenuen gogo eta nai ori
izandu dira betiak;
suerte on bat izan dezala
Tomas Madinabeitiak.
Etorritzean gogoan izan
zure eliztar maitiak.
Etorri lasai, zabal-zabalik
egongo dira atiak.

Bertso auek *El Diario Vasco* izparringian argitaratu ziran,
1981eko azaroaren 22an, Basarriren *Mi Atalaya Montañera*
saillean.

Mutiko baten ipuia

Baserri baten mutikotxo bat
oso pozikan zeguan;
gaba pasa ta lendabiziko
Jauna artu bear zuan.
Bakarrik zegon inguru artan,
beste lagunik etzuan.
Gau aretako bere ametsak
ziraden ermitatxuan.

Goizean amak mutil koskorra
txukun ta garbi janzten du;
mutikotxuak, pozaren pozez
saltatuaz jolasten du,
bien artean otoitz bero bat
zeruetara zuzendu.
Amak begiak malkoz bustirik
mutikoa laztantzen du.

Baserritikan ermitatxoa
dago puska bat urruti;
amak bi talo zoragarriak
egin zituen aurreti.
Zorro batian jarri dizkio
alkandoraren barruti
esanaz, Jauna artuta gero
ateratzeko zorroti.

Ta an dijoa zuaitz artean,
pasatu du pagadia;
zulo zokon bat pasa ondoren
ardientzat belardia.
Pozik dijoa pasa dulako
ia bidean erdia.
Baiña gosean zomorro beltzak
esna zaizkio ordia.

Eskua sartuz irekitzen du
zorroak zuen lazoa;
bere ertzetik zati bat jan du,
oso zegoen gozoa.

Beste zati bat jan gabe ezin
aurrera eman pausoa,
ermitaraiño eldu orduko
jan zuan talo osoa.

Mutikotxoa aillegatu zan
esandako ordurako,
eta apaizak itz egin zien
zeudeneri artarako,
Jauna artzia izaten zala
animaren onerako.
Dena bukatu ondorenia
pozik ziran aterako.

Mutikotxoa ermitatikan
atera ondorenia
jartzen da zelai eskiña baten
iturri aldamenian,
ta esaten du beste taloa
an bukatu duenian:
Zeiñen ederki oraintxe, Jauna,
bi talo aundin erdian!

Neronek moldatu nuen ipui au, bertsoan, ikusten dezun
bezala.

Andereño Mari Tereri

Mari Tere Guridi errian andereño zegoela emendik alde egin eta Frantzia aldera joan bearrean izan zan; eta Gabon batzuetan bere ikastolako umeak asko gogoratzen zirala-ta, beste andereñoak esan zidaten bertso batzuk moldatzeko, berari bialtzeko; eta onako lau auek moldatu nizkien.

Abestu nairik Mari Tereri
naiz egon oso urruti,
ikastolako aurtxoak ezin
zaitue kendu buruti,
naiz ta etzeran emen aurkitzen
aldeginik inguruti
zure biotza emen daukagu
irtena zure barruti.

Isla batean omen zaudela
inguraturikan urez,
zure erria gogoratuaz
naiz gau ta naiz egunez.
Zer gogoratzen egoten zeran
asmatuko degu errez:
zure Euskal Erri maiteaz eta
zure ikastolako aurrez.

Al dan lasterren nai genuke
zu onera iristia;
zure erriak ez dizula nai
zuri aterik istia.
Alaitu zazu zure barrena,
etzaitez egon tristia;
laster gurekin izango zera,
laster dator Aministia.

Bakoitzak bere etxian pasa
nai izaten du Gabonak,

sendi guztia alkartutzeko
dira oso egun onak.
Zerbaiten poza nai izaten du
urrutietan dagonak;
zure aurtxoak kantuz biali
nai dizute ZORIONAK.



Lagunarteko gizona zen Gurutz.

Lazkao Txiki pentsu-saltzaileari

Lazkao Txiki bertsolaria garai batean ibili zan Pamplona-ko *Cometa* deritzon etxearen ganadu-pentsuak saltzen, eta guk ere nola pentsua saltzen genuen, erosten genion zerbait beintzat, aldian bein.

Baiña une bat izan zan, ez dakit aberia edo beste zerbait izan zuten, ez zigutena pentsurik bialtzen, eta luzaro itxoin ondoren Lazkao Txikiri onako lau bertso auek idatzi nizkion eskutitzez.

Eskutitz bat bertsotan
nai dizut bialdu,
ta nere naigabea
garbiro azaldu.
Pentsurik gabe nago
eta ezin saldu,
irabazirik ez ta
parrokia galdu.

Badakit, Joxe Miel,
zuk ez dezu kulpa,
baiña norbaitek badu,
ori ezin uka.
Erostun guztiekin
ni emen muturka.
Gauza onek konpondu
bearra daduka.

Bi astean jo ditut
bi telefonazo,
andik neskatxa batek
itz egin dit gozo.
Agindu itz ederrez,
gero gutxi kaso;
minberaturik nago
gaur onekin oso.

Baiña oraindik ere
bertsotan umorez,
naiz itz egiñagatik
latz ta itz sakonez.
Eta eskatzen dizut
gauza bat, faborez:
jakin zazu biali
bea'uten ala ez.



Beti bertsoa buruan.

Kontu zaarrak

Orri onetan argitaratu nai ditut gerra aurreko kontu batzuk. 1934 ingurua izango zan; “Azrole” izenarekin idazten zuen Tiburtzio Elortzak (orain dominikoa danak) orduan ateratzen zan *Argia* asterokorako.

Orduan ere bazegoen euskal oiturari indarra emateko gogoia, baita izkuntzari ere; baiña gure gogoia orrela izan arren, gazte jendearen oso gertuan zeuden dantza lotuak, gure dantza txukunak baiño naiago nunbait, eta oso errez erortzen zan erderara ere.

“Azrole” zan Tiburtzioren izen ordekoa, eta ikusiko dezute ez dala besterik Elorza baiño, atzetik aurrera irakurrita.

Oso lagunak giñan biok, ori ere esan bearra daukat. Eta onek oso gogor egiten zien emakumeei, batez ere emakume abertzaleak ziranei, ez zutela izkuntza bear zan ainbat erabiltzen, eta dantza lotuetan ibiltzen zirala eta abar.

Emakume abertzale ziran batzuk etorri zitzaizkidan ezin eramanez “Azrole” onek esaten zien guztiagatik, eta esanez bertso batzuk moldatuko nizkien gai onetzaz.

Lau bertso zirala uste det, baiña iru bakarrik dauzkat gogoan orain.

“Azrole”k izparringietan
jarri ziguzan lenguan
emakume abertzaliak
nola jokatzen genduan.
Erderaz itz egiten degula,
dantzatu dantza lotuan;
baiña orretan emakumeak
gabiltza oso kontuan.

Jai arratseko egun argitan
jotzen digu danboliñak,
antxe dantzatzen aritzen gera
korro ederrak egiñak.

Mutillak orri “atraso” esanda
gero egin dantza zikiñak.
Gauza onetan neskak generala
mutillak ez bezin fiñak.

Gu mutillekin dantza lotura
ez degu iñoiz irtetzen;
dantza garbian gabiltzarian
etzaigu iñor etortzen.
Mutillak dira gauza orretan
ez diradenak portatzen;
orain, “Arzole”, saiatu zaite
mutil oiek konbertitzen.

“Arzole”k min artu zuen eta erantzutea nai zuen. Eta au
ere niregana etorri zan bertso batzuk jartzeko aiei erantzu-
nez.

Oni ere jarri nizkion sei bat bertso, baiña orain ez ditut
gogoan. Oso komentatua izan zan, polemika aundi xamarra
sortu zan, baiña orretan bearko degu utzi, askoz obe da-ta.

Imanol Aldaregiari

Imanol Aldaregiarekin izan ditut olako artu-eman batzuk; au da gotzai jaunaren idazkaria eta nere anai Serapio bera-rekin sarritan egoten zana.

Leenbiziko bertsoa ez dakit nola izango zan, baiña bere erantzuna izan zan nere bertsoak bere biotza jarri zuala su ta gar. Nik onako bi bertso auek moldatu nizkion.

Imanol jauna, gaur natorkizu
izketan lendabiziko,
bertsoen bidez ezagututzen
gerade biok asiko.
Nere bertsoak ainbeste ponpa
etzuten ez mereziko;
zu bezelako maisu batekin
zerbait nuke ikasiko.

Nere bertsuak zure biotza
jarri omen du su-garrez;
zureak, berriz, nik daukadana
bertsotarako indarrez.
Donosti ortan elkartutzea
izandu liteke errez;
besarkadarik anaikorrena
bidalitzen dizut aurrez.

Don Imanol Aldaregiari

Egun batean emen don Tomas Madinabeitia parroko zegoela, eta berau zan baillara ontako arzipreste ere, Aldaregiak agindu zigun afaltzera gure etxera etorriko zala; eta, ala, gelditu giñan don Tomas ere etorriko zala eta une eder bat pasatuko genuela. Nere emazte Marinak afa-ri ederra prestatu zuen, eta bere zai geundela, telefonotik abisua, Aldaregia ezin zitekeela etorri, gotzaiak zerbait abisatu ziola eta ez dakit nora joan bear zuelako. Ortan gelditu zan gure ametsa. Gero esan zidan don Tomasek bertso batzuk merezi zuela bidaltzea. Eta onako auexek bidali nizkion.

Agindu zenuena
beteko zenduna
denok uste genuen
etorritz eguna.
Au egiteko zer da
gertatu zaizuna?
Auxe da naigabea
eman diguzuna!

Gotzaiarenak nunbait
ziran albistiak,
baiña kunplitzekoak
al dira guztiak?
Erantzuna eman zizun
gure artziprestiak:
gure lurrean zertan
agindu bestiak?

Artziprestia ere
jarri zan serio:
-Nik jarriko ziot
gaur erremedio!
Ez dago emen gotzai
ta ez bikario;

nik agintzen dedanak
du emen balio!

Baiña, Aldaregia,
zerade makurtu;
biotza ain agudo
al zaizu samurtu?
Beste baten bitartez
ginduzun agurtu;
pentsatzen genuena
ez genuen lortu.

Zu ere nonbait zabiltz
beste batzun pare,
ezin izan norberan
buruaren jabe.
Nai dana ezin egin,
lanak badirade.
Beste egunen baten
bilduko al gerade?

Afari ederrakin
zegon emaztia,
eta zai geunden ni
ta artzipestria.
Gero telefonotik
zure albistia...
Asi baiño lenago
bukatu festia!

Gaizki etzazu artu
ezertxo, faborez;
guztia izandu da
borondate onez.
Orra bertso batzuek
nik jarri umorez.
Orain zeuk pentsatu
erantzun ala ez.

Omenaldia

1981eko maiatzaren 23an Antzuolako bertsozaleak omenaldia egin zidaten Gaztelugain deritzon lekuan. Oso jaialdi polita izan zan; erriko bertsolariak egin zuten saio ederra, eta ara joan ziran kanpotarrak ere saiatu ziran aal zutena egiten. An ziran Lazkao-Txiki, Azpillaga, Egileor, Gabiria, Goikolea, San Migel anaiak eta beste asko. Erregali ederrak ere eman zizkidaten eta, egia esan, nik merezi baiño geiago izan zan danetik.

Bukaeran eskerrak emanez lau bertso kantatu nituen, eta emen dijoazkizu.

Nere barrenak galdetutzen dit:
au dana zergatik neri?
Galdera bera egiten diet
au eratu duteneri.
Baiña ni ezin geldi ninteki
orain eskertu gaberi.
Biotz biotzez millaka esker
emen zaudeten denori.

Egia esan, beti izan det
bertsotarako afana;
aurrera ere bertsuen alde
egin nai det al dedana.
Bertsua baita gure euskera
gorde ta zaindu duana,
bertsua degu guztiok geien
alkartutzen gaituana.

Zerbait esanda nere barrena
nai nuke zerbait arindu,
naiz ta biotzak sentitzen duna
mingaiñak esan ezin du.
Merezi baiño geigo egiten
zerate gaur alegindu.
Pentsatzen nago au dana nola
bear dedan nik ordaindu.

Bertso onekin agurtutzea
nai nuke al banezake;
ez nuen uste bertsozaleak
ainbat nindutenik maite.
Il arteraiño nere gogoan
danak izango zerate.
Besarkadarikan anaikorrenez
agurtzen da Azkarate.

Bertso auek ere *El Diario Vasco* egunkariak ekarri zituen, 1981eko ekainaren 6an. Eta ondoren, Basarrik berak onela idatzi zuen *Nere Bordatxotik* atalean: “Berri auek dira ni geien pozten nauten berriak. Ez da gezurra izango nere lagun antzuolatarrak diona:

Bertsoa degu guztiok geien
alkartutzen gaituana”.



Antzuolako Udaletxea.

Gure illobari

Iturriotz baserriko gure illoba Juan Antonio Iturriotz mixiotatik etorri eta egun batzuk pasatzen zegoen. Eta bere urteak kunplitzen zituen egunean joan giñan bere baserriara, berari zorionak eman eta, bide batez, bere aita eta ama agurtzera, bada egun orretan ziran urteak eurak ezkondu zirala. Denak zorionduz bi bertso auek kantatu nizkien:

Juan Antonio:

Zure bizitzai beste urte bat
gaur diozu ezarri,
zure sendian gurasoekin
sekulako maitagarri.
Zure osaba auentzat ere
izango zaizu pozgarri:
gaur bezelaxe Juan Antonio
zoriondutzea sarri.

Joxe eta Maria Joxepari:

Bide batean beste batzuek
nai ditugu zoriondu,
gaur dirade urteak bete
biak ziñaten ezkondu.
Eta ezertxo esan gaberik
ezin gindezke egondu.
Aurrera ere orain artean
bezela ondo konpondu.

Don Tomas gure parrokoa ere bere urtebetetzean bertsoz zoriondu nai nuen, eta bertso batzuk egin nituen, naiz eta orain bakarra daukadan gogoan:

Urte bat geiagoz Jaun zerukoak
zure bizitza du jantzi;
daramakizun lan eder orri
al dan luzeena eutsi.

Ezbearretan bizi diranen
baratzera zera jetsi;
bere frutuak artuko dira
sendo biar edo etzi.
Artu zorion beroena ta
Jaunak zaitzala onetsi.

Baiña gero Zairera joan zitzaigun gure don Tomas parroko jauna. Elizkizun ederra egiñez agurtu genuen. Gotzai jauna ere etorri zan, eta erriko iru bertsolarik bertso bana kantatu genion. Neurea auxe izan zan:

Garai batean ez genun uste
gaur orrela ikusterik:
begiak malkoz beterik eta
biotza berriz tristerik.
Artua dezun bidea orain
guk ez daukagu isterik;
orain ez degu penaz beterik
agurtutzea besterik.

Zairera joanda, Eguberri aurrean bi bertso auek biali genizkien don Tomas eta don Iñakiri.

Urruti gaude alkarrengandik,
benetan gaude aparte;
baiña Gabonak beti bezela
elkartu naia dakarte.
Gogoarekin ezpada ere
artuz alkarrekin parte,
ondo pasatu ditzagun eta
zorion! Urrena arte.

Urte au ere bukatutzean
badatoz Eguberriak,
aurtengo ontan daduzkatzute
lagun guztiak berriak.

Guztiak nola elkartzen gaitun
jaio dan Aurtxo berriak,
zuen izenak gogoan ditu
Antzuolako erriak.

Gure seme Patxi eta Begoña Zairera joan ziranean, nere
emaztearen eta nere izenean bertso onekin bidali genien gure
agurra don Tomas eta don Iñakiri:

Bertsuen bidez gure agurra
Antzuolatik Zairera,
eta zer moduz zabiltzaten or
lendabiziko galdera.
Oso lurralde diferentea
dala enteratu gera;
notizi onak biali beintzat
ortikan gure aldera.

Gabonetan

Gabon eta Eguberri inguruan radiotikan dei egiten zieten aurtxoei gabon-kanta edo ipui eta bertsoak, edota zerbait abestera joateko.

Nere biloba Belenek lata gogorra ematen zidan bertso bat moldatzeko gero berak radiotikan kantatzeko. Nik, Euskal Errian aspaldi ontan bizimodu penagarria ikusirik, bertso auxe moldatu nion, eta ederki abestu zuen radiotik:

Jesus aurtxoa jaio zaigu ta
Beleneko estalpean,
Euskal Erriko umeak gatoz
gaur zuregana eskean.
Lenago emen giñan bezela
bizi izanez pakean,
gorrotoaren ordezt maitatu
egin ote gintezkean.



Gurutz eta Mariñe seme-alabekin.

Koruan

Gu gazteak giñala koruan kantatzen genuen jaiero. Eta bere ordaiña izaten zan opari bat, Santa Zezilia egunean. Baiña ematen zuten dirua ez zan aillegatzen guztia ordaintzeko, eta bakoitzak berak osatu bear izaten genuen falta zana. Uste det orain ere berdintsu ibiltzen dirala. Bazkari bat egi-ten dute, eta eurak zerbait jarri bear beti. Orregatik nik orduan bota nuen bertsoak balio du oraingo ere, nere iritziz.

Urte guztian eliz ontara
joaten gera kantura,
ta ez al degu oparitxo bat
merezi iñon kontura?
Gure artean osatutzeko
ekarri dute faktura.
Ez al da obe bialitzia
ori Aiuntamentura?

Oso ondo artu zuen bertso an bildu zan jendeak, baiña pagatu egin bear izan genuen, eta kitto!

Lazkao Txiki Antzuolan

Lazkao Txiki bertsolari aundia ona etorri zan batean, jubilatua euren tabernako lokalean festa ederra zuten, eta biok joan giñanean; soiñua eta panderoa joaz oso umore ederean zeuden.

Lazkao Txiki ikusi zutenean, danak txalotu zuten, eta laster biok bertso-saiotxo bat egiten asi giñan. Oso alai zebiltzan, batez ere soiñujolea. Alejandro zan soiñua jotzen, eta Pildain padero-jotzaille. Lazkao Txiki arriturik, berriz, ango umorea ikusita.

Baiña ez ziran egun asko pasa pandero-jotzaille Pildain au minbiziak artu zuela. Eta denbora gutxian eriotza etorri zitzaion, uste gabeko eriotza etorri ere. Eta gogor eragin zigungun; eta pentsatu nuen Lazkao Txikiri ere aditzera, ematea berak ain alai ikusi zuen-eta egun artan. Onako bertso auek bidali nizkion:

Lazkao Txiki, nere ustetan
izango dezu goguan
jubilatuen taberna artan
nola kantatu genduan.
Soiñua eta panderuakin
jarririk geure onduan,
ematen zuten alaiagorik
etzegoela munduan.

Jubilatuen oroigarritzat
jarria zuten eguna,
zeiñen alaitsu denak zebiltzan
ondo ikusi zenduna,
bertso batzuekin bukatueran
zerbait alaitu genduna,
opaturikan luzarorako
alako alaitasuna.

Soiñua oso egoki eta
panderojole bizia,
zuretzat ere uste det zala
oso une berezia.
Esan zenien dana zutela
oso ondo merezia,
dudarik gabe zerua ere
zutela irabazia.

Ikusi zenun zeñen alaitsu
jotzen zuen panderua;
etzuen uste orla ikusterik
ondoren bere burua.
Minbiziaren mendean laster
estomago ingurua;
ikus bearrez laster genuen
eskeiñitako zerua.


Dudarik gabe ematen dizut
gaur oso notizi beltza;
ondo artuko dezun usteak
ontara egiten dit bultza.
Pentsatzen ondo jarri ezker
izatean doain utsa,
bere animan alde oraintxe
egin dezagun otoitza.

Brasilera gutunak

Beste illoba bat ere badegu Brasilen mixiolari. Urte asko dijoazkio an. Eta berari eskutitzen bat bidaltzen diogunean bertso bat edo beste beti jartzen diogu. Ala ere, orain artekoak ez ditut gogoan, baiña 1982an auxe bidali nion:

Urte bat geigorekin
daukazu gorputza;
ondo jarraituzeko
eskatu laguntza.
Asko egin bearra
naiz ez izan utsa,
etortzea pentsatu
noizbaten onuntza.

Illoba au Juan Antonio Lizarralde da, Antzuolako Iturriotz baserrikoa.



Gurutz Azkarate.

Billobaren eskea

Gure billoba Belen etorri zitzaidan eguerdi batean esanez andereñoak esan zuela arratsaldean bertso bat idatzita eramateko, esanez bertso bat idazteko oporraldien bukaerako-
-edo. Onela izan zan jarri nion bertsoa.

Oporrak bukatu dira,
bai joan ere laster;
ikusiak ditugu
makiña bat bazter.
Baiña ikasi gabe
ez daukagu ezer.
Ikasiko al degu
ikastolai esker.



Azkaratetarrak belaunaldiz belaunaldi, 1996-7-7.

Zumarragako Galeperran

Zumarragako Galeperra elkartean egiten zan jaialdia, edo bertsolarien txapelketa.

Bai, Zumarragan Galeperra deritzon soziedadean egiten zan urtero inguru orretan egiten zan jaialdirik ederrenetako. Jaiaren antolatzaileak izendatzen zituzten bigarren maillako bertsolariak; eta leendabiziko afari eder bat egin ondoren, Joxe Lizaso eta Lazkao Txiki juraduan, eta Inozentzio Olea eta Luxio Gabiria gai-jartzaille eta puntuak ipintzen zirala egiten zan bertsolarien txapelketa ori. Barruan kabitu ezin aala jende izaten zan entzuten urtero.

1969garren urtea zan. Erri ontatik Gabilondo zegoen abesteko izendatua; eta Julian Lizarralde eta nik pentsatu genuen bertsoak aditzera joatea, erritar bat tartean zala beintzat-eta.

Gabilondok esan zigun berak ain otzean bertsotan astea baiño naiago izaten zuela aurretik alako saiotxo bat eginda joatea, eta irurok joan giñan puska bat leenago.

Galeperran txartelak artu afaltzeko, eta inguratu zitzaizgun Luxio Gabiria. Oni esan genion geure asmoaren berri, eta laurok joan giñan “Mardo” zeritzon taberna batera. Jarri maaiaren inguruan “Campo Viejo” botella bat aterata, eta asi giñan laurok bertsotan, alkarri txanda emanaz, gure erritar Gabilondo berotzeko asmoz.

Afaltzeko garaia inguratu zanean joan giñan berriro Galeperrara, eta jarri giñan Julian eta ni maai batean, eta Gabilondo joan zan bertsolarietzako reserbatuta zegoen maaira.

Andik puxka batera, or dator Gabiria ori estu eta larri, izendatuta zeuzkaten sei bertsolari oietatik batek –uste det Iraola izan bear zuela– ezin etorria adierazi ziela, eta biotatik batek bete bear genuela aren lekua.

Julianek leenbizitik eman zion bere ezetza, eta neri ari zan Gabiria au joateko eta joateko. Galdetu nion eta serio pentsatzen zuen nik bete nezakeela itxura baten txapelketa artako eginkizuna, eta ark baietz.

Luxio Gabiria ain larri ikusten nuen, bada, gai guztiak sei bertsolarirentzako jarrita zeuzkaten eta ez zegoen denborarik beste ñori abixatzeko. Eta neu ere Gabilondorekin berotzen puxka bat eginda nengoenez, baietz agindu nion, joango nintzala.

Alaxe, jarri nintzan neu ere bertsolarien maai artan, beste bertsolariekin batera. Azarola, Bittor Agirre, Igarzabal, Goiburu eta Gabilondo. Afaldu genuen bapo, lekua topetaraiño beteta zegoen eta oso ambiente ederra, urtero bezelaxe.

Etorri zan bertsotarako garaia eta leenengo denok agur bana bota bear genuela esan ziguten, puntuaziñoan sartu gabe. Gero, bi bertso, puntua jarrita; eta ondoren, ofizioa emanda iruna bertso, bi-bitara.

Leenbizikoan Agirrerekin, ura medikua eta ni andre alarguna; Agirrek sendatuko zuela, baiña senarra ilda.

Nere bi bertso, gutxi gorabera, onela izan ziran:

Mediku jaunak esaten dunak
beti daduka indarra,
baiña nik ere badaukat zuri
zertxobait esan bearra.
Zuk jarri dezu nere bizitzan
naigabe eta negarra...
Esan nezake zuregatikan
falta detela senarra.

Gero, berak errezetatzen zidan gauzarik ez nuela ekartzten, eta agindutakorik ez niola ematen gaixoari. Eta nik onela erantzun nion:

Errezetatzen zenidan dana
ekartzen nuen korrika,
esan bezela ematen nion
laster asko ekarrita.
Nere senarra ez baitzan ilko
zuk gaixua igarrita,

eta azkenik eman zenion
kontrakua zan botika.

Beste bertsoa ez naiz gogoratzen nola izan zan.

Gero, beste bi puntu jarri eta bi bertsoaren ondoren beste iruna bertso gaia jarrita. Ez naiz gogoratzen zer gai zan, uste det festatan zegoen erri bateko dendaria eta ni alkatea giñala. Orrelako zerbait izan bear zuen. Baiña bertsoak ere ez ditut gogoan.

Saioa bukatu ondoren, eraman ginduzten denok kanpora, banaka kantatzeko gai berdiñari buruz, au da, kartzelako gaian. Eta gai ontako bat zan bi bertso Urtaiñi; orduan Urtain oso goian zebillen, eta guk ere ala kantatu bear. Nereak onela izan ziran, alde aundirik gabe.

Boxeo ortan gaiko maillara
iritsi zaigula Urtain,
bere izenak mundu guztian
laster du buelta egin.
Bere golpeak, ikusten danez,
nunbait ematen dute min...
Bere aurrian jarri diranak
ez dute izan atsegin.

Eta bestea onela izan zan:

Itxura danez izan bear du
oso indar berezkua,
laster lurrera eroritzen da
ezartzei'ona eskua.
Leku ontatik biali degu
gizaseme tajuzkua;
onek bai ondo jaso digula
gora gure Gipuzkua.

Beste zerbait ere kantatu genuen, eta denak bukatutzean juraduak eman zuen bere iritzia. Eta nik asko uste ez nuena

eman ere. Goiburu eta ni gelditzen giñala beste saio bat egiteko, txapeldun zein izan erabakitzeko.

Biok banaka kantatu genuen, gai berdiñean. Bertso bat osatu genuen lau akaberak emanda; eta gero, gai bati bi bertso. Eta beste zer bait ere uste det bazala.

Biok amaitu genuenean, berriro ere uste ez nuen erabakia: neuri eman zidaten txapeldunaren kopa eta sobre bat barruan bosteun pezetarekin –ordurako diru asko zan–.

Aitortu bear det beste bostak ni baiño bertsolari obeak zirala guztiak. Baiña egia esan, nik uste det besteak ni baiño nerbiosoago joan zirala, guztiak leenbiziko saria ateratzeko ametsarekin; eta ni, berriz, nere bat betetzera joan nintzan, trankil, beste ametsik gabe. Eta uste det orrek ere asko lagundu zidala. Baita puska bat berotuta joateak ere, “Mardo”-neko “Campo Viejo”rekin.

Egun orretan berandu xamar joan giñan etxera. Kopa utzi nuen koartean kanpoko salitan, eta goizean emaztea jaiki eta kopa ura ikusi zuanean, artu eskuetan eta etorri zitzaidan koartora eta esan zidan:

–Kopa au ez zenduen zuk aterako beintzat?

Eta erantzun nion:

–Zergatik ez ba? Eta ez ori bakarrik. Or mesillan dagoen sobre ori ere bai.

Eta diru ura ikusi zuanean, arriturik gelditu zan. Au izan zan nik emazteari ekarri nion leenbiziko sobrea. Pentsa gauzak nola izaten diran.

Erriko bertsolari zaarrak

1982ko urriaren 30ean, erriko sei bertsolari zaarri –bertsolari eta bertsozaleak, noski– omenaldi bat egiteko asmoa zegoela esan ziguten. Baiña sei orreetako bat, Mariano Txintxurreta, Arlutz Etxeberrikoa, ezin ailegatu izan zan omenaldi au artzera, illaren 22an lurperatu baitzuten, Jaunak ala nairik, jendetza aundiarekin bere illetak egin ondorenean.

Elizkizun onetan erriko bertsolari eta bertsozale danen izenean bi bertso auek kantatu nituen:

Ai, Mariano, bertsozalea
izan zera zu benetan!
Bertsoen bidez itz egitea
nai dizut zure illetan.
Bertso kantari ibili zera
alaitsu mundu onetan;
seguru nago kantari sartu
zerala zeru goietan.

Omenaldi bat zuri egitea
orain pentsatzen genduan,
baiña uste det gure Jauna're
gogoratuta zeguan.
Guk egin baiño len beregana
nai izan zaitu eruan.
Guk eskeiñitako omen ori
egin daizula zeruan.

Alfontso Ugarteri omenaldia

Bere jaiotzako eun urte betetzean, Antzuolako erriak omenaldi bat eskeiñi nai izan zion musiko eta musika-jotzaille ospetsua izan zan erri ontako seme Alfontso Ugarteri.

Madriden oposiziotan aterata musika-arazoan kargu aundiak izan zituen, musikaren alde lan asko egiñez. Berak ateratako meza eta beste kantu batzuk ere abestu izan dira gure errian. Azkenik, Lizarran (Estellan) il zan bertako organista zala, eta beste kargu batzuk ere bere gain zituela.

Beragatik, eun urte betetzen zirala-ta bere jaiotzatik, erriak 1979garren urtean omenaldi eder bat eskeiñi zion abenduaren 29an.

Aurreko egunez afari popularra izan zan jubilatuen tabernan, eta afalondoan alako jaialdi bat, zine aretoan, antzerki, kantu eta bertsolari. Guztiak errikoak ziran, eta jendea kabituz eziñik. Oso jaialdi polita izan zen. Bere seme bat eta beste senide batzuk ere an ziran. Bertsolarien eginbearra Gabilondok eta nik bete genuen.

Urrengo egunean, igandea, meza nagusia bere semeak eman zuen, eta Alfontsok ateratako meza abestu zuen koruak. Gabilondok esan zituen Ugarteren doai berezienak, eta bere semeak itzaldi ederra egin, bere aitari buruz.

Meza ondoren, aureskua erriko dantzariak; eta gero alkateak itz egin zuen.

Estellatik udaletxeko batzuk etorri ziran, beren alkatearekin. Eta onek itz egin zuen euren errian Ugarterek egindako lanak goralduz.

Ondoren, Antzuolako erriak eskeiñitako kuadro bat eman zitzaion bere ondorengoei. Kuadro au izan zan erriko udaletxeak eta parrokiak agertzen zirala, eta idatzirik iru bertso.

Bertso oiek neronek jarriak ziran, eta eman aurretik abestu nituen altabozetik:

Aur bat ziñaden, jaio berria
orain dala eun urte;

musiko on bat izandu ziñan
ta erria zenun maite.
Eginbearrak eraman ziñun
zure erritik aparte.
Il ziñan, baiña oso gogoan
zaitu erriak, Ugarte.

Paregabea izan zenuen
musika ortan almena,
nai zuenari erakusteko
beti pozikan zeundena.
Apaltasuna izandu zenun
zure doairik onena.
Alfontso, ona zure erriak
eskeintzen dizun omena.

Une onetan egongo zera
zeru goitikan begira;
zure abesti gosea dator
gure biotzen erdira.
Itxaropenez begira gaude
zuk piztu zenun argira.
Patxesko soiñu alai batzuek
bidali zure errira.

Ondoren, erriko soziedade baten izan zan zerbait artuaz
umorezko egonaldi ederra, eta orrela agurtu giñuzen etorri
ziran Ugarteren ondorengo guztiak

Ezbear gogorra

Bai, ezbearrez, automobilakin Deskargan bera zijoazela, bidetik irten eta oso zauritua gelditu zan emen errian bizi zan Felixa zeritzon ogei urteko neska gaztea. Eta egun batzuk oso gaizki pasa ondoren il egin zan. Kanpotik etorriak ziran, baiña errian oso maite ziranak. Illetan jende asko izan zan.

Neskatxa au Jose Luis Zabaloren etxera joaten zan bere umeak zaindu eta lanak egitera, eta oso gogoko zeukaten. Orregatik, Jose Luisen emazteak nai izan zuen illetan bertso pare bat kantatzea, eta neri esan zidan moldatzeko. Onelaxe ziran:

Felixa maite bizi ziñana
mundu onetan pozikan,
ez genun uste ikusitzerik
orain orlako gauzikan.
Gazte alaitsu baziñan ere
orain ortxe ilotzikan...
Ezertxo ezin egin zugatik
otoitz bat egin baizikan.

Egia dala ikusi arren
ia ezin deu sinistu;
Jaunaren naia ala izanik
erremediorik eztu.
Zurekin bizi izan geranok
ezin iñolatan aztu.
Emen bizitz bat itzali da, ta
zeruan izar bat piztu.

Gazte-talde baten sendotza

1983an, erriko gazte-talde baten sendotza zan Gabon inguruan, eta elizkizun eder bat antolatu zuten. Gotzai jauna ere aginduta zegoen etortzeko, baiña ezin etorria gertatu zitzaion, eta bere ordez bere idazkari Aldaregia jauna etorri zan. Oso elizkizun eta jaialdi ederra egin zuten. Neri esan zidaten bertso pare bat kantatu bear nituela meza-denboran, eta onela abestu nien:

Kristau guztiok poztu gaitu
Jesus aurraren jaiotzak,
eta zueri itz egiten dizute
Jesus beraren abotsak.
Argitu zuen zentzunak eta
indartu zuen biotzak,
frutu ederra eman dezaten
errian zuen sendotzak.

Gaurko gazteak zer bide artu
badu naiko lanbidea,
ta zuek artu dezutena da
sendotu zuen fedea.
Gure Jaunari bere laguntza
da nere eskabidea.
Zorionak, ta zintzo jarraitu
artu dezuten bidea.

Zairetik itzultzean

Don Tomas Madinabeitia emen parroko dagoena eta Iñaki Larrea –Osintxu eta Elosun zegoena– joan ziran mixiolari Zairera; eta etorri ziranean bi illabete pasatzera, kontatu zizkidaten txerri bat il eziñik pasa zituzten gorabeerak; eta bertso batzuk jartzeko esan zidaten, nola izan zan kontatu ondoren. Nik onako auexek jarri nituen:

Bi apaiz juanak dira
emendik Zairera;
euren berri batzuekin
enteratu gera.
Bat kontatu nai nuke,
polita gaiñera.
Txerri bat iltzen egin
zuten ibilera.

Apaiz oiek dirade
Tomas ta Iñaki,
inguru ontakoak
nor diran badaki.
Txerri on bat iltzea
zuten erabaki,
baiña urrengorako
prestatu obeki.

Maillu batez buruan
jo zuten lenbizi,
tontotu zalakoan
gantxuakin asi.
Buelta bat egin zuen,
ta zuten ikusi
nola danen artetik
zoala igesi.

Korrika baten doa
an artasorora,

ta ondoren Iñaki
arturik aizkora.
Tomas ere gantxuaz
an doa ondora.
Billatzen pasa dute
bi ordutik gora.

Billatu zuten naiz ta
izan beranduan,
aizkorakin jotzea
pentsa du oinguan.
Jo nairik or dabil
zamaren onduan,
baiña txerria ere
alerta zeguan.

Baita ere ezarri
zioten lazua,
baiña txerria zegon
oso indartsua.
Soka apurtu eta
mutturra jasua,
aurrean zegonantzat
zer amenazua!

Txerriak Iñakiri
begiratuz larri,
zer intentzio zitun
ondotxo igarri.
Kolpiak botagatik
aizkorakin sarri,
golpe formalik ezin
iñola ezarri.

Ola jarraitu zuten
ia ordu baten,
bear zan kolerikan
etzion ematen.

Eskerrak azertatu
zun alako baten:
gantxua sartu eta
errenditu zuten.

Zer gertatu zitzaion
an txerri bateri
jakiteak ez digu
egingo kalteri.
Aizkoraz emandako
kolpez zauri, eri,
txerri gaixua antxe
il zaigu martiri.

Orra nik amar bertso
apaiz onen kontuz,
txerri iltzean berri
eman nairik kantuz.
Txerriarekin beti
ibili, ba, kontuz.
Iñaki onezkero
dadukagu damuz.

Oarra: bertso auek *Los Ríos* deritzon errebistak argitara eman zituen 1983ko abenduan.

Antzerki-saioa

Gabon jaietan antzerki-saio bat egin naian zebillen nere lagun Edurne Galartza, eta antzerki ortan gaztetxoak bertso batzuk abestu bear zituztela. Neri eskatu zizkidatenez, onela jarri nituen:

Jesus aurtxoa gurtu dezagun
orain guztiok batera,
seaskatxoan billusik dagon
Jainkoan seme ber-bera.
Izartxo batek adierazi
digu zure etorrera.
Kantu ta dantza, pozikan gatoz
alaitsu zure aurrera.

Irribarrea ezpainenetan ta
doai bereziz betea,
denoi begira ortxe zaude zu,
o gure Jesus maitea.
Esan diteke zeran guztia
nai dezula ematea.
Eman munduan geran danoi
maitasuna ta bakea.

Emen gabiltza ospatu nairik
guztiok zure jaiotza;
artzaiak ere izandu dira,
eta ekarri bildotsa.
Eta zer degu guk emateko?
Ezertxo ere ez, au lotsa!
Beste gauzarik ez degu eta
ar zazu gure biotza.

Sendotza-elizkizuna

1983ko abenduaren 23an amasei neska-mutil gaztek izan zuten euren sendotza errian. Gotzai jauna operatuta zegoen, eta ezin etorri izan zan, bere gogoa ala azaldu bazuen ere. Eta bere ordezkari Pagola jauna etorri zan, eta oso elizkizun polita egin zan.

Neri, beste askotan bezela, bertso pare bat meza denboran bota bear nituela esan zidaten, eta agindua orrela bete nuen:

Zuen sendotza dala medio
elizkizun ederrian
zuen gogua azaldurikan
emen guztion aurrian,
amasei gazte bildu zerate
Antzuolako errian,
sendotu nairik zuen bizitzak
fedearen indarrian.

Zer gauz ederra gaur ikustea
ainbat neska-mutil gazte,
euren fedea bildurrik gabe
azaltzera dijoazte.
Zorionak ta jarrai orrela
naiz jai ta ala aste,
Jesus aurtxoan laguntza ere
izango baitegu laste.

Arrola-mendi alkartea

Arrola elkarteak urtero izaten du jai eder bat, medallak emanez mendizale irabazle deneri. Aurten ez dute izan medallarik, izan dituen kalteak gogoan dituztela. Eta eurak dira leenbizi ori erakutsi nai izan dutenak.

Iñaki Eizmendi “Basarrik” onela jaso zituen bere *Bordaxotik* saillean nik bidalitako oharra eta bertsoak, 1984ko urriaren 24an:

Antzuolan bada mendizale alkarte bat Arrola deritzana.

Nere lagun zintzo Gurutz Azkaratek adierazten didanez, oso lan ederra egiten ari da gaztetxoan artean. Mendizaletasuna sortzen du Arrola Alkartek erriko gaztetxoan artean, ta badala esango nuke drogazaletasuna sortzea ainbatekoa.

Aurten Gorbea gaiñean kokaturik zeudela, ekaitzaldi batek jo eta egundoko kalteak izan zituzten Arrola Alkartekoak. 350.000 pezetatik gorako kalteak.

Urtero egiten dute jaialdi bat mendigaiñean. Gaillurretara igotzen diranak medallaz saritzen dituzte.

Lengo okerrak gogoan izanik, eta gastu berrietan ez sartzeagatik, aurten ez da medalla banaketarik egin. Ori da garbi eta zintzoki jokatzeara.

Ala ere, mendiratu ziran guztiei eman zitzaizen salda beroa eta txistorra.

Meza polita mendigaiñean, oitura duten bezela, meza-emaille don Emeterio zalarik.

Ona emen egun ura zala-ta moldatu nituen bertso batzuk:

Tellatu zero goia,
alboan txabola,
aldare obegorik
ez dago iñola.
Meza entzuten antxe
zutikan nengola

pentsatu nun: aitatu
bear det Arrola.

Alkarte au sortua
daukagu errian,
egon nai ez duena
kale baztarrian.
Bere bizia dauka
mendi gaillurrian,
gogoa goian naiz ta
gorputza lurrian.

Gazteak beti dauka
zerbaiten egarri;
mendiko pakea da
zeiñen zoragarri!
Arrolak nai du bide
ontara ekarri,
pakea indartuaz
maitatu elkarri.

Ekaitz batek egiñak
aundiak kalteak,
galerazi medaillak
aurten emateak,
baiña eginkizunak
ziraden beteak.
Ondo zituzten gero
txalotu jendeak.

Mendi-meza ederra
izan genun oso,
Emeteriok gero
itz egiñez gozo.
Medaillen orde z eman
zituen bi bertso,
urre-medaillak diran
bezin balioso.

Urtero jaialdi au
antolatzen du ta
ez dedilla gelditu
sekulan galduta.
Zorionak, Arrola,
merezi dezu-ta.
Zu bizi zerade, bai,
danok lagunduta.

El Diario Vasco – Nere Bordatxotik,
Basarri - 1984.10.24

3 eta 4garren bertsoak ziran izparringian leku faltaz eka-
rri ez zituenak. Basarrik bere kontura idatzi zituen nik Arro-
lagatik eman nizkion berriak, aipatutako egun orretan.



Etxeko giro gozoan.

Erregeenetako erregalia

Elutzeko Juanita dendaria eta biok beti elkarri broman ibiltzen gera; eta Errege egun bezperan esan nion, gure leioan jartzen bazuen zapata, zerbait jarriko ziotela erregeak.

Errege egun goizean agertu zitzaidan zapata bat “pazientzi” pakete bat eta puru bat barruan zituela. Gure semea eta erraiña elkarrekin izan nunbait eta onek ekarri zuten zapata ori. Nik ere zerbait bidali bear ba, eta goxoki batzuk bidali nizkion, bi bertso auekin:

Gaur goizian izandu det nik
sekulako atsegiña:
emakumien zapatatxo bat
norena zen ez nekiña.
Bere barruan “pazientzia”
baita ere errekiña;
errege ordez gogoratu da
gaur nerekin erregiña.

Zapata ori bearrezkua
izan leike onenian,
zapata gabe ezin liteke
ibili gaur egunian.
Millaka esker bialtzen ditut
bueltan bere barrenian;
bere jabea billatuko du
gaur korreo berdiñian.

Los Riosera zinta

Gure anaia Migel Los Riosen zegoela zinta bat bidali gunion zerbait bakoitzak esanez, eta bukaeran neri esan zidaten bertso bat kantatzeko zinta ori bukatzeko; eta orrela izan zan. Ni aztuta nengoen, baiña Serapiok zintatik artu zuela eta ekarri zidan bertso ori.

Denon partetik bertso batekin
gaurko zintaren azkena,
guztiok emen bere aldetik
in degu al genezakena.
Olako eguna bukatutziak
beti ematen du pena,
baiña joan bearra du Serapiok,
oraintxe daduka tren.

Familia oiñarri artuta

1984 urteko azkenengo igandean familia oiñarri artuaz egin genuen jaialdi berezi bat Antzuolan. Amabietan meza nagusia, berrogei bat erritarrek zerbaitean parte arturik. Don Emeteriok (parrokoa) neri esan zidan pare bat bertso kantatu bear nituela meza orren barruan. Jende asko bildu giñan, eta oso ederki joan zan guztia. Nere bertsoak onela dira:

Familiaren goguengarri
izan degu gaurko meza;
zeiñen ederra gaur egunean
familiako babesa!
Maitasun itza bere barnean
ondoraiño sartu beza,
eta luzaro iraungo dula
egin dezagun promesa.

Urte au ia bukatu degu,
ta badator ondorena,
eska dezagun izan dedilla
denontzat alik onena.
Bizibide bat izan dezagun
gaur premian dagoena.
Danen gaiñetik ez dezagula
galdu famili izena.

Arregeei zapata

1985eko Errege egunez emazteari zapatan jartzeko ez nuen ezer, eta papertxo baten bi bertso auek jarri nizkion, egun aietan katarro aundiarekin zebillen-eta. Onela ziran:

Beste gauzarik ez daukat eta
jarri nai dizut bertso bi,
zapata ori bete nairikan,
nere idea da ori.
Borondatea badaukat eta
zertxobait nai eskeiñi:
nik dedan dana ar zenezake
baldin bazaizu komeni.

Emaztea, nai ta ez dakit zer,
auxe da daukadan miña!
Daukazun gaitza kendu nairikan
egin nai det alegiña.
Barrenan dezun katarro txarra
ta arnas artu eziña,
ori kentzea litzake orain
zuretzako atsegiña.

Migel eta Mertzedes jubilatzean

Migel eta Mertzedes anai-arrebak jubilatatu ziranean, gonbidatu gintuzten bazkari eder batera, anai-arreba denak geure seme-alabekin. Egun ederra pasa genuen, benetan.

Leenbizi Bergarako Santa Marina elizan izan genuen meza, eta neri esan zidaten bertso pare bat botatzeko, askotan egin oi dedan bezela. Auexek bota nituen:

Meza donean bildu gerade
gaur anaitasun ederrez,
egun eder bat pasatu nairik
denok etorri geranez.
Gonbidatuak izan gerade
eta borondate onez.
Eskerrak eta milla zorion,
bai Migel ta bai Mertzedes.

Egin dezuten lanan saria
kobratzen asi zerate;
eta bertatik danori zerbait
orain eman nai dezute.
Ori guztia, nere ustetan,
merezia daukazute;
eta aurrera urte askuan
ondo gozatu zazute.

Erriko erlijiosoei

1985eko ekainaren 9an, Antzuolako erriak omendu ziotuen erriko erlijioso ziran guztiak. Berrogeita zazpi ziran guztira, gaiñera; bada zerbait erri txiki baterako. Ala ere, guztiak ez zuten etortzerik izan, baiña geienak etorri ziran, eta jaialdi ederra egin zuten emen.

Ni egun aietan Benidorm-en nengoen, eta arutz abixatu zidaten egun orretan meza nagusian kantatzeko iru bat bertso egiteko gai orri buruz. Alaxe bidali nizkien ondorengo auek:

Berrogei eta zazpi erritar
zaituztegu gaur goguan,
Jaunaren deia bete nairikan
zabiltzatenak munduan.
Alabearrez guztiok emen
or daude gure onduan;
omenaldi au, egia esan,
lenagotik zor genduan.

Batzuek emen izan zerate,
beste batzuk urrutian;
sendi ta erri, dena utzirik
eta oinbeste urtian.
Azi ederra erein dezute
zuri ta beltzen artian.
Frutu ederra etorriko da
nunai egunen batian.

Zuen lan ori aundia dala
guztiok aitortzen degu;
beragatikan eskertu nairik
emen bilduak gaude gu.
Eta luzaro jarrai zazuten
gure Jaunari erregu;
eta azkenik erriko denak
zoriontzen zaituztegu.

Tiburtzio nere lagunari

Tiburtzio Elorza, nere oso laguna izana gaztetan, gero mixiolari joana da Ameriketara aldera. Perura joan zala uste det. Emen egonaldi bat egin ostean, berriro joan zanean eskeiñi nion eskutitz au.

Eta onela, erdia bertsotan, beste erdia itz lauan idatzi nion, ikusiko dezunez. Xenpelarren liburu bat eman zidan berak joan zanean, eta oni buruz bertso au jarri nion:

Xenpelar liburua
artu nun zugandik;
bertsolari ezauna
nuen nik au lendik.
Eskerrak eman gabe
nenguan oraindik:
Eskertzen zaitut, Tibur,
biotzan barrendik.

Gero berak idatzi zidan nola operatu zuten esanez, baiña oso ondo sendatua zegoela. Orri buruz auxe esaten nion:

Gorputzetikan nunbait
zenbiltzan elbarri,
operatuta orain
ondo zera jarri.
Urteak urtearen
gaiñian ezarri,
itoiñien bat nunbaiten
orain gure sari.

Bere anai Felipe il berria zuen ordea, Beasainen bizi zana, leenago emen errian bizi bazan ere. Eta nere atsekabea eman ez onelaxe jarri nion beste bertso bat:

Gaitz batek arturikan
zedukan mendean;

ez degu aldentzerik
deia degunean.
Oroitu ta otoiz bat
goiz eta gabeen.
Laguntzen dizut, lagun,
nik atsekabeen.

Eta emengo beste berri batzuk ere emanaz, geure arteko
kontu batzuk jarri ondoren, bukatzeko azken bertso auxe
jarri nion, oso bertsozalea zan-eta:

Alkarrekin ibili
giñan gu eskolan;
egun aiek ez dira
aztutzen iñolan.
Zu urruti zabilta,
ta gu Antzuolan;
mundua eramaten
bazegok naiko lan.

Jubilatuen eguna

Beste askotan bezela, emaztea eta ni Benidorm-en geundela, Antzuolako guraso-alkarteak antolatu zuen egun bat erriko jubilatuen omenez. Meza nagusia izan zuten, gero dantzariak, aurrekua eta ondoren deneri bazkari eder bat eman zieten; eta batere ordaindu gabe gaiñera. Neu ere jubilatuen batzordeko nengoen garai artan, baiña ez nuen joaterik izan, kanpoan geunden-eta, esan bezela.

Ala ere, Nieves gure lagunak deitu zidan bazkari onetan kantatzeko bertso pare bat moldatzeko esanez; eta, ala, telefonoz nik esan eta berak apuntatu zituen, eta gero bazkari ortan abestu zituzten. Orrela ziran bertsoak:

Jai au eratu duten deneri
nere eskerrak aurrena,
egin dezute, nere ustetan,
gauzarikan ederrena.
Jubilatuok, poztu guztiok,
alaitu zuen barrena.
Zuen artian pasatuzeko
izaten geran urrena.

Jubilatuen egun eder au
ezin det kendu burutik;
zuen artian ezin nintzala
naiz ta banekin aurretik.
Nere gogua zuekin dago,
naiz ta gorputza urruti.
Egun eder bat opa dizuet
nere biotzan barrutik.

Zarautzen geundela

Urte artako uztaillaren 17an Zarautzen geunden, eta urrengo egunean nere emaztearen urtebetetzea zan. Gure illo-ba Amagoia eta Xabier geurekin zeuden, eta amonari zerbait egin nai ba, ta naiko itxillu bazan illuntze artan gure artean.

Nik pittin bat lagunduta Amagoiak berak asmatu zuen onako bertso au:

Amama, maite zaitut
urtebetetzean,
eta maiteko zaitut
bizi zan artean.
Zoriondutzen zaitut
gaur zure egunean,
eta bizi gaitezen
guztiok pakean.

Nik ere zerbait egin nai ba, eta bi bertso auek jarri nizkion. Eta beste erregalo guztiak baiño ilusio geiago egin omen zioten irakurri zituenean.

Gure etxean bada
naikua zarata,
biar gure amaman
urtea dalata.
Nik ere neure naia
zerbait egin nai-ta,
bertso polit bat, ustez,
nai nioke kanta.

Lanean pasa dezu
bai jai ta bai aste,
zartuko giñanik'e
ez genuen uste.
Baiña sinistu zazu,
Marina emazte,
ikusten zaitudala
leno bezain gazte.

Joxe Gorrizek eun urte

Joxe Lizarralde, Antzuolako Gorriz baserrian bizi danak, oraintxe, 1985eko abuztuaren 19an, eun urte betetzen ditu. Bada zerbait, baiña osasunez dago oraindik ere.

Joxe Gorriz izenez ezagutzen degu inguruko guztiok. Gizon jatorra eta alaia da benetan. Oraindik buru ona eta argia dauka, eta kontu zale amorratua da.

Egun orretan bere izatearen gorabeerak jarrita album edo olako liburu bat eskeiñi nai diote; eta erriko parroko don Emeterio ibili da lan orretan. Neri ere eskatu zidan or jartzeko bertso pare bat molda nitzala, eta onela eskeiñi nizkion.

Gaztea nintzan, eta Udalan
zu erriaren zerbitzu,
toki danetan zure fedea
agertzen zenun paketsu.
Alaitasuna beti zurekin
lengo kontu zar ta bertsu.
Seguru nago: eun urtian
izan zera zoriontsu.

Zeñen gizona izandu zeran
kanpoan eta etxian,
Jauna eskertzen zenun urtero
urtebete bakoitzian.
Ai, Joxe Gorriz, poz berezi bat
daukadala biotzian,
nere omena artu ezazu
EUN URTE BETETZIAN!

Basarriri omena

1985eko maiatzean Basarri bertsolari aundiari omenaldi eder bat egin zion Zarauzko erriak. Bere irudia ere jarri zuten plaza batean, eta antxe dago orain kale nagusian pasatzen diran danak agurtuz. Nik beti ematen diot begiratu bat, bertsolari maitea nuen-eta errezildarra.

Ez nuen joaterik izan omenaldi artara, oporretan Benidorm-en aurkitzen giñan-eta. Baiña andik bidali nion eskutitz bat zorionak eta eskerrak emanez egin duen lan guztia-ren ordaiñez, bertso onekin:

Zenbat lan eder egin dezun zuk
izparringi ta irratitik!
Bertsotan ere ibili ziñan
erririk erri aurretik.
Merezitako omena orain
artzera zoaz erritik.
Zoriondutzen zaitut, Basarri,
biotzan barru-barrutik.

Bildots-jana

Gure lagun diran Martzelino eta Nievesen seme Imanol ezkontzen zala-ta, gu ere gonbidatu gintuzten eztaietara. Eta poz-pozik joan giñan.

Imanol au jaio zanean, joan giñan emaztea eta biok ama eta aurra bixitatzera, Eibarrera. Eta bixita egin ostean, beste leengusiña Maria, moja zegoena, ikustera irten giñan, bein Eibarreraiño joan giñan ezkerro. Martzelino ere gurekin irten zan, eta mojurekin egon ondoren, an joan giñan taberna batera zerbait artzeko asmoz. Baiña bildotsa zegoela oso ederra esan ziguten, eta bildots-jan eder bat egin genuen, lasai asko.

Baiña denbora ere uste baiño geiago pasatu guk, eta Nieves gaixoa gure zai zegoen joan giñanean, asarre xamar gaiñera. Orregatik atera degu platerara bildots-jan dontsuzko au. Orregatik bertsoan jartzen dedana, geure sariaz batera.

Munduratu ziñala,
ta zan abenduan,
bildots ederra janez
ospatu genduan.
Arrezkero guztiak
gabiltza munduan;
orain ezkontzen ere
alkarren onduan.

Ana Jesus – Imanol,
bikote maitea,
pozikan artu degu
zuen gonbitea,
ta erabaki degu
bertara joatea.
Artu gure zorion
ta borondatea.

Umearen ametsa

Orain dala urte asko idatzi nituen bertso auek, gure iru umeak txikiak zirala.

Errege egunak ziran, eta emaztea eta ni biok gripearekin oian geunden, gaixorik. Umeak euren ametsa bazebiltzen buruan beti bezela, eta zapatak garbi-garbi egin eta zerbaiten itxaropena, Errege egunerako. Baiña biok ola geundela, oso errege pobreak izan ziran urte orretan gurean. Gure amak zerbait jarri zien, baiña ezer gutxi izango zan, noski.

Gero, egun orri buruz idatzi nituen ondorengo bertsoak.

Ume gazte bat lotara doa;
zer daramaki buruan?
Iru errege pasako dira
bere etxe inguruan.
Beste gauzarik umetxo orrek
ez dauka bada goguan;
bere amatxo begira dago
noiz luak artuko duan.

Luak artuta amets gozuan
asten da gure umia;
leio ondora etorri zaio
Bizarzuri erregia.
Pitxi ederrak uzten dizkio,
pelota ere aundia.
Umea, berriz, begira dago
kendu gaberik begia.

Bere ondoren errege Beltza
ikusten du datorrela;
gauza ederrak uzten dizkio,
aurrekuaren bezela.
Irugarrena ere badator,
ta egiten du orrela.
Gero badoaz esanez: "Gabon
Jaungoikuak dizuela".

Gauza denekin jolas egiñez
antxe dabil gau guzian.
Gauza ederrak dira guztiak
besterik euki ezian.
Atsegin ontan pasa ondoren
oso denbora luzian,
umetxo au esnatu zaigu
Errege egun goizian.

Oetik salto eta leiora
dijua oso pozikan,
baiña ez du inun ikusten
berak uste zun gauzikan.
Utzi zituen zapatak ere
antxe daude uts-utsikan;
ez du ikusten bere amaren
irribarrea baizikan.

Ama on orrek bere umea
artzen du beso artian,
bere ametsa aurreragotik
ere nunbait bazekian.
Esaten dio: “Ez dira etorri,
ez beintzat orain artian.
Itxoin dezagun, etorriko’ira,
seme, urrengo urtian”.

“Amets gozo bat –esaten dio–
eduki det gaur gabian:
Iru errege ikusi ditut
neure leiuan aurrian.
Pitxi ederrak utzi dituzte
leio orren barrenian;
gero ezertxo ez det aurkitu
bertaratu naizenian”.

Au adituta pena aundia
artzen du ama gaixuak;

berriro ere luzaturikan
zabal dizkio besuak.
Maitagarriak izango ziran
aren orduko musuak,
Erregearen pitxi ederrak
aiñako baliosuak.

Baiña oraindik bere semia
ikusitzen du tristia,
bere ametsa ametsa danik
ez luke nai sinistia.
“Beste batzuna joaten dira ta
ona etortzen ezta?”
“Oraindikan etorriko dira,
ene semetxo maitia!”

Jaki batentzat zeukan dirua
bere amatxok du artu,
itxita zegon denda batera
atzeko atetik sartu.
Jostailu batzuk erosi eta
pozez laster etxeratu;
umea, berriz, orain arteko
zoriontsuen biurtu.

Oarra: Ni gogoratzen nintzan bertso auek idatzi nituela noiz-
bait, baiña neuretzat betirako galduak zeuden, nere anaia
Serapio apaizak gorde izan ez balitu. Onek, etorri zan batean,
bertso oiek irakurri, eta berak eraman zituen, eta ondo artxi-
batuta eduki ditu nunbait geroztik. Ari eskerrak, gaur ere
bizi dira oraindik beintzat.

Familiaren alde

1985eko abenduaren 29an jarritako bertsoak dira ondorengo auek, erriko festa eder bat zala-ta.

Izan ere, urtero garai onetan bezela, igande onetan ospatu zan gure erriko eliza nagusian familiaren oroigarri jaialdia. Oso jai ederra eta polita izan zan, jende askok parte arturik, bakoitzak bere ofrendatxua eskeiñiaz. Gure erriko eliza ederra jendez gaiñezka zegoen.

Neri esan zidaten ea bertso pare bat abestuko nituen; baiña esan nien bertso oiek idatziko nizkiela bai, eta bi mutiko abesten ibiltzen ziranak kantatuko zituztela, nik baiño eztarri ohea izango zutela-eta. Alaxe egin zuten.

Familiaren oroigarria
darama gaur igandeak
agertu nairik erri danari
berak ditun baloreak.
Parte artuaz zar eta gazte,
ta baita ere umeak.
Famili ortan pasa ditzagun
maitasunezko uneak.

Familiako maitasunean
ospa zagun Eguberri;
familia da, esan gentzake,
geure bizitzan oiñarri.
Urte zaar au pasa dezagun
denok maitatuz alkarri...
Maitasun eta pakea denoi
berriak daigun ekarri.

Errege egunez emazteari

1986ko Errege egunez nere emazteari zertxobait jarri nion nion bere zapatan, izan ere Olentzerok ez ziola ezer ekarri esaten ari zan-da. Beste gauzarik ez neukan momentuz eskuartean, eta milla pezetako loteria-dezimo bat jarri nion, ondorengo iru bertso auekin batera.

Olentzerok bidali
ditu Erregiak
zuri ekarritzeko
gaur erregaliak.
Ala merezi du-ta
gaur egun aundiak,
eta pasa itzatzu
penarik gabiak.

Zure zapata ez degu
nai gaur utzi utsik,
ez du ardura izan
asko edo gutxi.
Geure borondatia
nairik erakutsi,
zure zapatan zerbait
nai genuke utzi.

Zapata ere ez da
oso dotoria,
baiña neretzat berdín
dauka baloria.
Ez pentsatu danikan
dana tonteria.
Irtengo dan ustean
orra Loteria.

Loiolako irratiak 25 urte

Loiolako irratiak 25 urte betetzen zituela ta bere entzuleei egin zien dei bat esanez zerbait idatzita bialtzeko irratora, ospakizun oni buruz, eta sariren batzuk izango zirala zerbait bidaltzen zutenen artean.

Gure billoba Belenek esan zidan bertso batzuk moldatze-ko, eta berak bere izenean bidaliko zituela. Eta onako auexek idatzi nizkion, eta bidali zituen.

Irratiak dituzu ogeita bost urte;
une eder ugari eman diguzute.
Neskatxa gazte batek eskatzen dizute:
Aurrerantz orrelaxe jarraitu zazute.

Lenbizitik bazkide da neure aitona,
zuri aditzen sarri etxean dagona.
Esan diodanean zure berri ona,
esan dit: "Emaiezu nere zoriona!".

Goizetik asten zera, gero dezu meza;
gaixo, elbarrientzat askoren babesa.
Danen naia egiten naiz ez dan erreza,
baiña on duen dena, ala egin beza.

Goizeko notiziak, alaitu gaixuak,
erritako notizi eta errezuak,
politika ta kirol, kantu ta bertsuak...
Zure une guztiak dirade goxuak.

Zuk esanak dituzu makiña bat egi
ta sarri ez zanean alaxe komeni,
euskeraz itz egiñaz, emanez aurpegi.
Beste urte askuan orrelaxe segi.

Apozako bertsolari-txapelketa

Eskoriatzako errian dago Apozaga deritzon erria edo auzo bat. Ala ere, Apozaga esan det, baiña Apotza deitzen diote alde artan baillada polit oni. Oso bertsozaleak dira an, eta urtero egin izan dute alako bertsolari-txapelketa bat, inguruko bertsolariekin.

Urte asko da oitura au dutela, eta asi zanetik neuri ere otsegin izan didate txapelketa orretan parte artzeko, eta bein baiño geiagotan izan naiz, batez ere juraduko, txapela nori eman erabakitzeke.

Leenengo iru giñan juraduan, baiña txapelketak ere indar aundia artu duela-ta, orain geiago izaten gera. Lazkano eta Mendizabal bertsolariak ere tartean dirala, guztira bost izan gera epaimaaian azkenengo urte auetan.

Aurtengo txapelketaren ordezt bertan bertsoen alde geien saiatu diran Patxi Goikolea eta Akizuri omenaldi txiki baiña gozo bat egitea erabaki zuten. Neri ere deitu zidaten egun orretan faltatu gabe joateko.

Oso jaialdi ederra izan zan. Urtero bezela, leenengo afa-ria -200 edo geiago bildu giñan- eta beti bezela lagunarte ederra egin genuen gero. Naiko bertso bikain ere bazan an. Antxe aritu ziran bertako bertsolariak, eta gero Lazkanok, Mendizabalek, Euzkitzek eta Sarasuak saio bikaiña egin ziguten. Ondo goratuak izan ziran Goikolea eta Akizu jaun oiek.

Azkenik, nai zuenak bertso bana botatzeko aukera eman ziguten, eta mordoska ederra bildu giñan ortarako ere. Nik ere, aukera au zegoen ezker, bertso bat botatzea pentsatu nuen, eta onela izan zan, aldaketa aundirik gabe:

Nik ere zerbait esan gaberik
gaur ezin nezake utzi;
omen au merezia zenuten,
bai Akizu ta bai Patxi.
Oitura dan lez gaur txapelikan
iñoi ez diogu jantzi,

baiña gaur zuek zoriontzeko
neuria bear erantsi.

Gero omenduei erregaliak ematea izan zan, eta sari pill
ederra bildu zitzaien. Guk ere, Antzuolako bertsozaleok, zer-
bait eraman genien, eta zaarrena nintzanez, neri zegokidala
ematea erabaki zuten, eta biei olako bandejatxo bana eman
onako bertso auxe kantatu nien:

Antzuolako bertsozaleak
ain maite zaituztegunez,
agertutxo bat egin nai degu
zuei zertxobait emanaz.
Gauza txikia da, bai, benetan,
denok ikusten degunez,
baiña sinistu egiña dala
oso borondate onez.

Oarra: Asieran ez dizuet esan, baina 1986ko otsaillaren
15ean egin zan Apotzako jaialdi-omenaldi au.

Loiolako irratiak 25 urte

Loiolako irratiaren 25 urte betetzearekin, irrati onek festa eta eginkizun asko moldatu zuen. Antzuolako udalaren lurrean nola duten euren antena jarria, esan zidatenez, nolabait eskertuz idatzi zion Udalari. Eta onek akordua artu zuen bandeja bat erregali bidaltzeko.

Illuntze baten etorri zitzaizkidan gure alkate Juan Mari Ugalde eta Iñaki Lete kontzejala bandeja orretan bertso bat idatzi nai zutela eta Antzuolako lurrean nola daguan aipatuz urrengo goizerako moldatuko banu bertso ori. Agindu nien baietz, eta urrengo goizean eman nien, onelaxe idatzita:

Antzuolako lurrian
ogeita bost urte
Loiola irratiak
egin dituzute.
Amaika gauza eder
eman diguzute.
Zorion beroenak
artu itzazute.

Antzuolako Udala, 1986

Emeterio Sorazuri despeira

1986ko irailaren 7an izan genuen jaialdi ederra, orain arte gure parroko bost urtean izan dan Emeterio Sorazu jaunari despeira eta Xabier Zubizarreta parroko berriari ongi etorri egiñaz.

Aurreko egunez izan genuen Emeterioren despeira biozpera. Larunbat illuntzean jubilatuen aretoan afaria izan genuen. Baiña nai zuten guztiak ez zuten joaterik izan, leku faltaz, ain zuzen ere. Berreun bat lagun bildu giñan, eta giro ederrian izan zan afaria eta jaia. Bazan an kantari, bertsolari eta trikitalari ugari, elkarri toki eman ezinda. Neuk ere bertso batzuk kantatu bear izan nituen, eta guztia ondo atera zan.

Igandean meza eder batekin izan zan apaiz baten irteera eta bestearen sarrera. Mezaren arduradun Imanol Aldaregia jauna izan genuen, Gotzaiaren ordeez, onek ezin izan zuelako etorri. Koruak Refice-ren meza eta aita Madinaren Aita Gurea abestu zituen ederki asko. Eta elizkizun artan bildu giñan jendetza ederra, denok pozik zorutzen, denok gustora.

Mezaren amaieran, oroigarritzat eman zitzaion don Emeteriori kuadro eder bat, erriko iru argazki eta iru bertsorekin. Bertsoak neri esan zidaten jartzeko, eta azkenik neuk kantatu bear nituela. Alaxe egin nuen. Iru bertso oiek abestu ondoren eman nion kuadro polit ori don Emeteriori.

Ia bost urte gure artean
emen egondu zera zu,
Gotzai jaunaren aginduz orain
joan bearra dadukazu.
Gure nai ona Antzuolatik
beintzat eraman ezazu;
gurekin ondo portatu zera,
Emeterio Sorazu.

Al dan onduen konpondu nairik
emen gure arazuak,

katekistekin lan egin dezu
egun eta gau osuak.
Premia dunai lagundu eta
gozamenduan gaixuak...
Era onetan izandu dira
eman dituzun pausuak.

Erri ontako zenbat gauza ta
istori dezun aztertu!
Aurrera ere eginkizun au
ez dezazula baztertu.
Guztiagatik eliztar denok
bear zaitugu eskertu,
eta azkenik desio onez
denok biotzez agurtu.

Oarra: Jaialdi auen berri Iñaki Eizmendi "Basarrik" bere orrian eman zuen bertso ta guzi, 1986ko iraillaren 12an, *El Diario Vasco* egunkariko *Mi Atalaya montañera* saillean, oitua zuen bezela.

Ujoldeak

1988ko uztaillaren 19an, ujolde aundia izan zan gure erri inguru auetan. Antzuolan ere egin zituen kalte ikaragarriak urak. Gure etxe au ere kalte oietan oso sartua izan zan. Almazena, errota, panaderia, guztiak urak goraiño artu zituen, eta eginkizun gogorak izan giñuzen berriro lanean asteko.

Baiña erriko jendearen laguntza aundia izan zan emen. Gazte eta eldu, denak saiatu ziran emen lanean, eta benetan denei eskerrak eman bearreko laguntza izan genuen. Ez da gutxi olako egunetan!

Ori dala-ta, bertso batzuk –sei bertso guztira– moldatu nituen nik, eta Basarri jaunak *El Diario Vasco* egunkariko bere atalean argitara eman zituen, 1988ko uztaillaren 30ean.

Danok dakigu nola izan dan
izugarrizko ujola,
eta geientsu entzun diranak
dira Deba ta Urola.
Bien artean nola baitagon
nere erri Antzuola,
jakin ni ere kalte oietan
oso sartua nagola

Egun orretan, ala bearrez,
nengoan ni erbestian,
berealaxe jakindun nintzan
eman zuten albistian.
Eta errira joan nintzanean
gauza ura ikustian,
penazko ezten zorrotz bat sartu
zitzaidan gorputz guztian.

Ezbear danak izaten dute
beren alderdi leguna:
pozigarria da erri guztian
egin dan alkartasuna.

Gazte ta eldu, guztiak gertu,
egin nairikan al zuna.
Ezin ordaindu diteke diruz
izan dan laguntasuna.

Urak indarrez etxe askotan
zabaldu zitun ateak,
izugarriak izandu dira
egin dituen kalteak.
Gorputzak auldu, biotzak triste,
begiak malkoz beteak;
denoi laguntza eman deigula
gure Jaungoiko maiteak.

Ezbear onek, ikusi degu,
guztiok gaitu anaitu;
borondatezko laguntza onek
erri dana bildu gaitu.
Era onetan nai genuke guk
aurrera ere jarraitu;
atsegiñikan ez bedi gero
ondorenean amaitu.

Erri onetan egiña digu
ur orrek naikua kalte,
baiña errian ikusi degu
dala naiko borondate.
Udala ere ondo porta da,
kontzejal eta alkate;
baiña emendik aurrera ere
naiko lana badaukate.

Zarauzko oporraldia

Egonaldi batzuk egiten ditugu emazteak eta biok Zarautzen, San Pelaio deritzon auzoan. Eta an egiñak baditut lagun jator batzuk.

Jubilatuentzat leku berezia dago auzo artan, eta egiten giñun egonaldi ederrak antxe. Norbaiten urtebetetzea zanean, ark pagatu oi zuen eguneko amaiketakoa, eta broma ederrak pasatzen genituen kantu eta bertso.

Urtero bezela, mus-txapelketa ere eratu zuten, eta ni ere partean artu ninduten. Au dala-ta, bertso batzuk idatzi nituen, eta Basarrik eguneroko bere atalean ekarri zituen, 1989ko urtarrillaren 8an.

Auzo polita da San Pelaio,
ta ezaguna Zarautzen;
nik ere ala det aspaldian,
bertan nolatan gabiltzen.
Lagun jatorrak egiñak ditut,
ala zait iruditutzen;
alkarterikan ederrenean
geralako denok biltzen.

Jubilatuak dute eurentzat
moldatutako txokoa,
giroa ere bertan jarriaz
eurentzako modukoa.
Mus txapelketa egiña dute,
amabigarren jokoa.
Ni ere bertan sartu naute ta
badet zer egin naikoa.

Gazte batzuek lagundurikan
datoz bertara urtero;
estimatzeko lana da ori
ondo pentsatu ezkerro.
Nik ere auen laguntasuna
nolatan nuen espero,

ala gazte bat toka zitzaidan
suerte eginda gero.

Ari giñala joko orretan
erne genula burua,
alde batetik ordago eta
bestetikan, enbidua...
Nerbiosuak ere baziran
azaldurik jeniua,
baiña benetan oso ederra
sortu genuen girua.

Jokatu genuen denon izenak
nik ezin eman iñola;
baiña musian ondo egiten
dakiña asko dagola.
Zerbait ikasi nai dunarentzat
emen daukate eskola;
aurten txapeldun izan diranak
Iturain ta Manterola.

Berriro ere San Pelaiori
egin nai diot bixita,
musean ere zuen artean
nola nagoen asita.
Auxe aitortu bearra daukat:
ez noa irabazita.
Beste batean izango al da,
bitartean ikasita.

Zarautzen, 1988ko udan
El Diario Vasco, 1989.01.01

Kintoen jaia zala-ta

Tomas Madinabeitia emen parroko egona, gero Zairera joana eta orain Oñatiko parroko dagoena, oso etxekoa degu guk. Eta etorri zizaidan esanez bertso batzuk bear zituela bere kintoei kantatzeko, beren jaialdian, eta bialtzeko mese-dez. 1964ko kintoak dira auek, eta aurten zituzten euren zillar-eztaiak. Il diranak ere aipatzeko eskatzen zidan, eta onela izan ziran:

Milla bederatzireun eta
irurogeita lauean
kinto giñan ta zillar-eztaiak
gabiltz ospatu naiean.
Apirillaren amabosta da
jarririkan seiñalean,
nai gendukena pasatutzea
elkarterik onenean.

Batzuk badira gure artetik
beste mundura joanak;
gogoratuak izango dira
orla arkitzen diranak.
Egun orretan etorri zaite,
utzi gaiñuntzeko lanak,
egun eder bat pasa dezagun
oraindik bizi geranak.

Oarra: 1989an egindako bertso auek inprentan atera eta kinto bakoitzari bidali zizkioten paperean jarrita, eta oso ondo artuak izan zirala esan zidan, egun ederra pasatuz.

Euskeraren alde

Antzuolako Udalak, olako euskeraren egoerari zerbait egin naian, etxe guztietara bidali ditu orri batzuk azalduaz euskera errian zabaltzeko zerbait serio egin bearra dagoela, euskeraren alde aalegindu bear degula denok esanez.

Orrezaz gainera, artu du erabakia erriko bertsozale guztiei eskatzeko biña bertso gai oni buruz. Neri ere eskatu didate, eta onako auexek jarri ditut:

Aitona batek:

Beti euskaldun izandu gera
Antzuolako errian,
belar gaiztuak noiz sortu ziran
gure baratz ederrian?
Azi garbia erein dezagun
ain mardul dagon lurrian,
lore guztiak mintza ditezen
euskera maitagarrian.

Kanpotik asko sartu dirade
euskera ez dakitenak;
guk geuriari eutsi daiogun
emen bizi geradenak.
Dakiñak egin, eta ikasi
dezala ez dakienak
denbora gutxi barru euskera
mintza dezan erri denak.

Aingeru Goardakoa jubilatuetxean

Zarauzko errian, San Pelaio auzoan, bada alako jubilatuetak biltzen diran leku eder bat, leen ere esana dedanez. Etanik ere auzo orretan nola egonaldi batzuk egiten ditudan, areto orretara sarri joaten naiz. Norbaitek bere urteak betetzen dituenean amaiketako emateko oitura dago, eta orrela sarri xamar izaten ditugu billerak an.

Onezaz gaiñera, elkarteak berak, gelditzen zaizkion irabaziekin illean bein amaiketako bat ematen du, ara joaten diran guztientzat. Orregatik, ni joaten naizenean beintzat, kantu eta bertso faltarik ez da izaten; eta ederki pasatzen degu. Joan gabe denbora puska bat pasatzen badet, esaten didate bertso-rik eta kanturik gabe amaiketakoak ere sosoagoak izaten omen dirala. Orrexegatik, oso ondo artzen naute. Lagun jatorrak badituz egiñak bertan, eta ondo pasatzen degu.

Elkarte orretan oraintxe jarri dute Aingeru Goardakoaren irudi polit bat, auzoan bertan bizi dan batek egiña. Eta eskatu zidaten bere aldamenetan jartzeko bi bertso jartzeko, eta alaxe, egurrezko bi kuadroetan jarri zizkioten irudi orri.

Aingeru Guardakua,
nai zaitugu jarri
San Pelaio auzuan
lagun ta zaindari.
Lagundu egiozu
zuk auzo danari,
ta batez ere bertan
diraden zarreri.

Inñurritza're berdin
gogoratu zazu;
zure laguntasuna
eskatzen dizugu.
Iruditxo bat emen
jarria daukazu.
Bertan bilduko gera
orain gu eta zu.

Oñatiko Txepetxa

Oñatin parroko dagoen gure lagun don Tomas Madina-beitiak esan zidan nola Oñatin talde bat eratu duten neska eta mutilen artean. Batere lanik eta eskolarik galdu gabe, euren ibillaldi, jolas eta kultura eta euskeraren alde zerbait egitea omen da euren elburua. Izena, Txepetxa jarri diote. Eta neri esan zidan bertso batzuk jartzeko, gero musika jarri eta euren himno bezela izateko. Orrela jarri nituen ondorengo bertso auek:

Txepetxa, Txepetxa,
gaztetxuak grade
bildurik alkarrekin
lanikan utzi gabe.
Dantza eta antzerki
gabiltza ederki.
Irterak erbestera,
indartuz euskera.
Gure naia izanik,
saiatuko gera.

Euskera, euskera,
musika eta dantza
bat egiñik gabiltz
mutil ta neskatxa.
Kanpamentuetan
kantu alaietan
indartuz taldea,
jaialdi zalea...
Txepetxa gera gu,
eta zu, gurea.

Mendira, mendira...
baso eta zelaiak
pasatzen ditugu,
bai une alaiak!
Eguraldi ederrean,

arbol adarrean
saltakari beti.
Gelditu aurretik
gora zagun Txepetxa,
ta gora Oñati.



Gurutz, ezkontza batean.

Sendotza-egun batean

Sendotzako egun batean nik kantatu nituen bertsoak ar-
tu zituen gure anaia Serapiok. Eta ari esker orain emen jar-
tzea lortu det bertso oiek.

Sendotza orretara Setien Gotzaia ere etorri zan, eta gero
denok bazkaldu genuen ederki asko. Gero bazkalondoan izan
ziran bertsoak ere.

On egin denoi, eta auxe da
jendetza zoragarria!
Sendotza izan dutenentzako
egun gogoangarria.
Ori dala-ta emen bildurik
ikusitzen da erria.
Gotzai jauna ta laguntzailleai,
denoi ongi etorria.

Gazteak ere euren bidea
artzen badute naiko lan;
ortxe dabilta euren gogua
ase eziñik iñolan.
Jarraitu zagus Jesus aurtxoak
erakutsi zigun eskolan;
alkar maitatuz zorionean
bizi gaiten Antzuolan.

Giza artean ikusitzen da
osoko era illuna.
Gazte maiteak, gogoan izan
betiko gaurko eguna.
Zuen eskutan ikusten degu
errian etorkizuna.
Orixe degu gaurkoan emen
zarrok ikusten deguna.

Bazkaria're aitaturzia
nola degun bearrezko,

oso ederki jarria zego
babagorri ta oillasko.
Meltxorrek beste lagun batzuekin
egiña du or lan asko.
Beste gauzarik ez daukat eta,
denori eskerrik asko.

Irteeran:

Gotzai jaunari beste batentzat
eskatutzen dizut baimen;
ikusten dezu nolatan gaurkoz
gelditzen geran gu emen.
Berrero ere nai dezunian
etorri zaite, Setien.
Gure partetik esaten degu:
izan dedila lenbailen

Antzuolan, 1980.12.28

Gas Butano

Ezdakit zenbat, baiña urte asko dira Bergarako Juan Mari *Biltokikoa* butano saltzen asi zala. Eta bein esan zidan ia bertso batzuk egingo nituen Butanoari buruz. Eta nik jarri nizkion bertsoak baiña ez nuen kopiarik egin neuretzat ere gordetzeko. Ala ere, eskerrak gure anaia Serapiok gorde zituela, eta orain aurkitu ditugu, asko balio ez badute ere. Eta idaztea pentsatu det.

Saio luze samarra zan. Amasei-edo idatzi nituen, onelaxe.

Etxekoandrea, sarri ibili
Zera zu bai hasarre;
zerbait gertatu nahi dezute
egin eziñik ezerre.
Alde batetik berotu ezin,
beste aldetikan erre...
Gas Butanokin guztia berdin,
baita merkeago ere.

Sarri ikatza sutu eziñik,
eta hezea egurra;
kendu ezazu su egiteko
eukitzen dezun beldurra.
Ba, ez pentsa esan dedana
danikan bate gezurra,
Gas Butanokin egingo dezu
su eder eta xamurra.

Zure diruak balio du ta
aditu, etxekoandria;
diru horrekin balio duten
gauzak erosi behar dia.
Non eta nola erosten dezun
haundia dago aldia.
Biltokin, bada, eros ezazu
behar duzun sukaldia.

Guk zergatikan ibili behar
beste guztien atzian?
Lendikan dute Ameriketean,
Alemani ta Frantzian.
Ez al degu, ba, hobe ibili
beste batzuen antzian?
Dudarik gabe jarri ezazu
sukalde hori etxian.

Biltokik, bada, zabalduko du
sukalde horrentzat gasa,
hogeitatu bat duro besterik gabe
hilabete oso pasa.
Lehertuko dan beldurrik gabe
lasai hartu lei arnasa;
sukalderikan onena, berriz,
Biltokira joaten baza.

Lehengo batian ilargitikan
hartu degu abisua,
aspaldi hontan Gas Butanokin
egiten dutela sua.
Geu bizkorrenak geralakuan
gabiltza mundu osua;
eskerrak norbait etorri danik
jarri liteke plazua

Sukalde honek erreztasuna
haundia dauka berekin,
garbia da ta egiten dezu
gainera diru gutxikin.
Horrez gainera berri gehiago
dituzunak Butanokin,
joan zaite ta jakingo dezu
garbiro asko Biltokin.

Gaur egin leiken gauza zertako
bizi biharko utzita?

Sukalde horrek bere bentaja
ondo du erakutsita.
Dudarik gabe egin ezazu,
bada, Biltokin bisita,
etxeratu nahi baldin badezu
gauza onak erosita.

Ur beroa gaur beharrezkoa
izaten degu etxetan,
naiz eguerdian ta arratsaldez,
iluntze eta goizetan.
Dirua bota nahi badezu
behar diraden gauzetan,
Gas Butanokin ura berotzen
jarri ezazu gaur bertan.

Gauza ederra degu benetan
konturatutzen bagera;
ur berorikan ote daguan
sarri da gure galdera.
Jarri litezke etxe guztian
iturri, dutxa, baiñera...
Ur berorikan ez da faltako,
diru gutxikin gainera.

Merkia dela esaten dizut
lehendabiziko hitzian;
behar dan ura berotutzen du
bertatikan pasatzian.
Alperrik berotutako urik
ez da egoten ontzian,
ta ur berorik ez dezu falta
behar dezun bakoitzian.

Lantegietan ere baditu
bere bentaja haundiak
garbia eta leku gutxian
lan egiteko jendiak.

Komeni zaizun gauza da-eta
zabal itzatzu begiak:
Gas Butanokin merke ta berdin
berotu leizke labiak.

Ikusi degu garbiro asko
joan daneko aspaldian,
Gas Butano da sugai onena
hogeigarren gizaldian.
Hamabi mila kalori ditu
kilo bat gasek aldian;
gauza berdinikan ez duena
da lantegi ta sukaldian.

Gizakume ta emakumeak
sarritan mendira joanda
egurra bilduz su egitea
lan neketsua izanda.
Baina zein alai jartzen geraden
janari beroa janda.
Hori guztia egin diteke
Gas Butano eramanda.

Hamaika gauza Gas Butanokin
asmaturikan dituzte;
egun batian argirik gabe
nolanahi geldo zindezke.
Gas Butanokin argi ederrak
etxean jarri litezke;
oraindiokan ez badaukazu
joan zaite lenbaitlen eske.

Gas Butano da errekinetan
gaur merkeena dagona;
garbia eta txukuna're bai,
hauxe dala gauza ona.
Gehiago pentsatu gaberikan,
nahiz andre edo gizona,

zure sendira eraman zazu
benetako ZORIONA.

Bertso onen bidez, eta gure erosketa batzuen bidez, amistade aundia egin genuen Juan Mari eta bere emazte Susana-rekin. Nik ez dakit bertsoak bentajarik egin zien, baiña poz aundiarekin ikusi det euren denda eta Butano-banaketan oso ondo dijoazela, ondo ari dirala lanean, lokal eta denda berriak zabalduz.

Orain nai nuke emen argitaratzea alkarrekin izan genuen gertaera bat.

Bergarako Pazkoa jaiak ziran, eta ni nere emaztearekin eta lagun batzuekin gindoazela, topo egin genuen Juan Mari, bere emazte Susana eta bere lagun batzuekin.

Asi giñan alkarri zerbaitxo esaten, eta antzuolarrak eta bergararrak beti izaten dute zerbait esateko, eta an aritu giñan alkarri aal genuena esaten. Gero, puska bat baretu giñanean, au esan nion Juan Mariri

-Ik, Juan Mari, oso su ederrak ekarri dituk, eta guztion onerako. Ekarri dek Butano-sua, Propano-sua eta abar. Baiña ik euretzat ekarri dekan sua izan dek onena: Su... sana.

Bere emazte Susana leenbiziko zala oso ondo zelebratu genuen nere ateraldia.

Oporretan Angusiana-ra - Rioja

1974ko kontuak dira auek. Gure lagun Joxe Lizarralde “Marka” eta bere emaztea, Maritxu Okina, beti ari ziran esaten egun batzuk pasatzera Angusianara joan bear genuela, bertan eurak zeukatzen etxean oso ondo egongo giñala. Eta alako batean animatu giñan joateko, eta bi urtetan joan ere bai gero, egun batzuk oso ederki pasatuz.

Joxe “Marka” onek lagun asko zituen erri artan egiñak. Geienak bilbotarrak gaiñera. Eta gertatu oi dan moduan, ni ere euren lagun egin nintzan, eta eurak nereak.

Egun batean, beste askotan bezela, asi giñan txikito batzuk edanez tabernatik tabernara, kontu kontari. Eta ontan, atera zuten gaia izan zan zeñek zenbat urte soldadu edo serbitu zituen. Bata asi zan berari lau urte egitea tokatu zitzaiola, eta an eta emen ibili zala; beste batek, iru urte egin zituela, baiña geiago ibili zala. Besteren bat agertu zan sei urte ibili zala esanez... An ari ziran denak bakoitzak bereak esaten.

Ontan, puska bat ixildu ziranean, nun ateratzen naizen ni, eta onela esaten nien –erderaz ari giñan eta nik ere ala mintzatu bear–: Pues me parece que aquí el que más ha servido he sido yo (Denak ixilduta neri begira jarri ziran zer esan bear ote nuen, eta onela jarraitu nuen), porque yo he servido tres años al Ejército de Tierra, y treinta años a la Marina.

Au aditzean guztiak aoa zabalik gelditu ziran, ni nere denbora itsasoan pasatutakoren bat izango ote nintzan. Bata asi zitzaidan bere aita ere mariñela izan zala; beste batek, tio bat merkante aundi baten zebillela, beste batek berari ere itsasoa asko gustatzen zitzaiola, eta ala aritu ziran denbora luzean, itsas-gizon bati itz egiten ari ziralakoan.

Ontan, denbora puska bat pasa ondoren, koadrillan konfiantza geiena nuen bati esan nion ez al zuen artu nik esan nuenaren trukoa. Eta ezetz esan zidanean, ala esan nion:

–No se dan cuenta de que mi mujer se llama Marina? Pues, como hace treinta años que nos casamos, y serví tres

años en el Ejército de Tierra, creo que está bien dicho que serví tres años al Ejército de Tierra y treinta años a la Marina.

Au entzun zuenean, ari egin zion grazia nik sartu nien ziria zala-ta, eta laster joan zan beste lagunengana, eta grazi ederrarekin kontatu zien nere ateraldia.

Denok umore ederrean zelebratu genuen txikiteoa, eta aurrerakoan ondo gogoan izan zuten ateraldia. Andik urte gutxira Antzuolako pelotalekuan erori txar bat izanda il zan Joxe (GB). Maritxu, berriz, bere semearekin Bergaran bizi da, eta oraindik ere asko tratatzen degu alkarrekin.

Antzuolan, 1991n



Gurutz eta Mariñe urre-eztaietan.

San Pelaio - Zarautz

Leen ere aipatua det nola egoten geran Zarautzen oporretan, San Pelaio auzoan; eta bertan dagoen zaarren soziedadean sarri egoten naizela, eta an egoten diranekin oso lagun egiña nagola. Egun ederrik pasatzen degu antxe.

Laukote bat dago bertan joan daneko aspaldian, beti, illuntzero maai batean mus-jardun ederra egiten duena. Eta ni sarri egona naiz aiei begira, grazi berezian jokatzten aritzen dira-ta. Eta esaten zidaten bertso batzuk jartzeko euren mus-jardun orri buruz. Onela jarri ditut bertso auek:

Bi bikote dira ta
ia urte guzian
jubilatuen elkarte
ta mai berezian
aritutzen diranak
gauero musian,
zerbait falta dutenak
au egin ezian.

Eginkizun berdiña
oi dute ekarri:
ziria sartu naia
daukate alkarri.
Eta nola dakiten
an elkarren berri,
ikusmira polita
jartzen dute sarri.

Nortzuk diraden esan
bear onezkero:
batetikan Esteban
eta Molinero,
bestetik, Gregorio
ta Santos, gauero
galtzerik eztutenak
beñere espero.

Naiz ez aundi ta txiki
ez joku ta pare,
musa serio kendu
oi dute alare.
Eta jotzen ez dute
bildurrik batere.
Ortan Esteban dute
danen direttore.

Enbidotikan laster
doaz ordagora,
ta jokoa or dabil
bera eta gora.
Ortan pasatzen dute
umorez denbora.
Begira egondu naiz
sarritan gustora.

Laukote orrek badu
zerbait berezia:
eurei begira jartzen
da jende guzia.
Jokatzen dana ez da
gal-irabazia.
Or balio duna da
daukaten grazia.

Berriro ere Zarautz

Leenago ere aipatua det Zarautzen egonaldi luzeak egiten ditugula emazteak eta biok. Eta baita nola zaarrak duten leku orretan amaiketako ugari egiten degula, bakoitzaren urtebetetzea danean.

Iru-lau bertso kantatzen asi nintzan leenengo, eta orain ez didate uzten kantatu gabe. An kantatu ditudan danak emen jartzea geiegizkoa izango litzake, baiña istripu bat izan eta anka bat moztu zioten baten urtebetetzean kantatu nizkionak emen jarri nai ditut, maaian neure aurrean tokatu zitzaidan-eta azkenengo aldian ere.

Bere begietatik malkoak zerizkiola entzun zituen kantatu nizkion lau bertsoak:

Zuregatikan une batean
egondu giñan serio,
zuk istripu bat izan zenuen
ta ori zala medio.
Baiña orain emen zaude ta
gaur orrek baitu balio,
denon partetik eskerrak eta
zorionak, Zezilio.

Kamioiaren azpian antxe
egondu ziñaden estu;
gauza orrela datorrenean
erremediorik eztu.
Baiña orain beste aldetik
zindezke pixka bat poztu,
oraindik beintzat bizi zera zu
naiz eta anka bat moztu.

Auek esanda ez nuke nai
zuri kalte egitea,
denak bezela nik ere ona
baitaukat borondatea.

Ta zer obe dan, nere iritziz,
nai nuke nik esatea:
bi ankarekin lurpera ala
batez bizi izatea?

Konpondu ezin ugari dabil
begira mundu aldera,
gerra bizian ortxe dabilta,
eta denentzat galera.
Anaitasun au baiño oberik
munduan ezer ote da?
Berriro ere zuk gonbidatu
emendik urte betera.



*Berrogeitamar urte dirade
biok, ezkondu ginala
eta Jainkuak, ala nairikan
oraindik ondo gerala
pasa dezagun egun eder bat
denok, nai degun bezala
eta oraindik nai duan arte
aurrera gorde gaitzala.*

*Egun onetan nai gendukena
gu biotan da ezagun
elkarturikan emen biltzea
gure senide ta lagun
zuek, gurekin or izatea
nola gustatuko zaigun
etorri lasai egun eder au
denok ospatu dezagun.*

Euzko eta Marmita
Urrezko Eziaiak, 1994 - 7 - 6

Gure ezkontzako urre-eztaiak

1944ko uztaillaren 6an ezkondu nintzan Marina Jauregi-rekin. Beraz, orain dala 50 urte. Eta aurten egin ditugu gure urre-eztaiak.

1994ko uztaillaren 9an izan genuen ospakizuna. Emen-txe, gure Errotaberri etxean egin genuen, geure sendi, senide, billoba eta lagun mordoska ederra bilduta.

Leenbizi, meza izan genuen nere bi anaia apaizak meza-
-emaille antxe zirala; eta gero, bazkari ederra, eta bazkaloste zoragarria.

Egun orretarako gonbitea egiñez, denei bidali genien alako tarjetatxo bat, bere alboan bi bertso idatzita zituela.

Berrogeita amar urte dirade
biok ezkondu giñala,
eta Jainkuak ala nairikan
oraindik ondo gerala.
Pasa dezagun egun eder bat
denok nai degun bezala,
eta oraindik nai duen arte
aurrera gorde gaitzala.

Egun onetan nai genuena
gu biotan da ezagun,
elkarturikan emen biltzea
gure senide ta lagun.
Zuek gurekin or izatea
nola gustatuko zaigun,
etorri lasai egun ederra
denok ospatu dezagun.

Udalari eskerrak

2001eko Gabon jaietan Antzuolako Udalak opari bat bidali dit: poltsatxo batean iru botella, marka oneko ardoarekin, eta berarekin batera tarjeta bat alkatearen firmarekin, onelaxe ziona:

AGURTZEN DU

Honako onen bidez, gabonik zoriontsuenak eta urteberririk onena opa dizkizugu. Bide batez, eskerrak eman nai dizkizugu kultur batzordeari egindako laguntzogatik, batez ere Antzuolako ohiturak eta usadioak jasotzeko izan dezun partehartzeagatik.

Milla esker.

Antzuola, 2001eko abenduaren 21ean.
Alkatea

Nere eskerrak agertu nairik nik ere Udalari bidali nion tarjeta bat bertso onekin:

Nere lan ori eduki dezu
ikusten danez gordea,
ta bitarteko dadukazula
gure Kultur batzordea.
Estimatzen det, bene-benetan,
ein didazun onorea.
Eskerrak, eta aurrera ere
jarraitu nai det bidea,
naiz eta gauza aundi-aundirik
gaur ezin egin, ordea.

Begirik kendu gabe

“Begirik kendu gabe” Euskal Telebistan ematen zuten saio batera joan giñan Antzuolatik amar lagun, eta egin zuten zozketan geuri tokatu zitzaigun astebete baserri batean pasatzeko aukera, orain *Agroturismo* deitzen dieten baserri oietako baten, alegia. Elizondo partean, Urruzka baserrian.

Beno, Elizondotik amar kilometrora mendian gora leku zoragarria, paketsua da baserri ori, eta famili jator bat bertan. Etxerik gertuena lau kilometrora dago, eta ortik pen-tsatu.

Eguraldi ederrak tokatu zitzaizkigun, eta oso ederki pasatu genuen. Ni emaztearekin eta telebistara gurekin joan zan gure lagun bat, bera baitzan saria irten zitzaiona. Ala beintzat, irurok joan giñan egunak pasatzera.

Baserriko familiarekin egiten genuen jatordua, denok batera bazkaldu ta afaltzen genuen. Len esan det zein famili jatorra zan, batez ere etxekoandre gaztea, Joxepi. Emakume langillea eta argia; oraintxe ere ez da geldu egongo ura.

Gustora geunden, eta laster joan zitzaigun astebete. Ibi-llaldi ederrak egiñaz, pago eta lizar artean; zelai ederrak eta dolmenak ere ikusi genduzan mendi gainean. Frantzia partean ere sartzen giñan noizik bein, muga bertan baitzegoen.

Etorri bear genuen egunean iru bertso auek kantatu nizkien ango nagusiei, eta gero euretako bakoitzak bere iritzia-rekin idatzitako liburuan ere idatzi nien.

Urruzka baserria:

Baserri eder eta galanta,
dena txukun eta garbi;
ola zaindutzen atera bear
da emen franko izardi.
Baso ederrak inguruetan,
pago, lizar ta belardi...
Bertan dabilta bei eta txekor,
eta berreun bat ardi.

Telebistaren sarian bidez
ementxe aste betean,
Urruzka izena duen baserri
Elizondoko partean.
Sendi eder bat ezautu degu
emen gauden bitartean,
beñere aztuko ez geradenak
bizi geraden artean.

Gure egunak bukatu dira
ta bear degu aldegin,
gu zaindu nairik egin dezute
zuek naikoa alegin.
Eta agur orain, seme-alabak,
eta amonatxo ere berdin;
eta azkenik biotz-biotzez
agur, Joxepi ta Fermin.

Gure lagun Juan Roman

Zarautzen egon giñanean oso lagun egin giñan, besteak beste, bikote batekin. Guretzako lanak egitera etortzen zan emazte Joakiña, eta senarrarekin ere oso ondo konpontzen giñan.

Gero, semea ezkondu zitzaien, eta familia izan zutenean ez zuen etortzerik izan. Bere ordeko beste bat billatu zigun orde. Baiña gero ere alkarrekin asko tratatzen genuen.

Orain dala egun gutxi jakin degu nola senar Juan Romanek istripua izan zuen, eta nola Poliklinikan zegoen. Ala, gure erraiña Begoña joan zan bixitatzera, eta an ikusi zuen sokarekin anka bat lotuta. Eta esaten ziotela olaxe egon bearko zuela iru illabetean.

Bera ere oso bertsozalea izanik, agindu zion urrena joaten zanean nere bertso pare bat edo iru eramango zizkiola. Eta orrela nere lau bertso auek jarri eta bidali nizkion.

Eritua zeundela
nola jakin dodan
bertsotan natorkizu
ta gaiñera broman,
zure barrena nola
lasai egongo dan,
besarkada aundi bat
artu, Juan Roman.

Era biurri baten
zaudela gaur oian:
sokarekin lotuta
anka bat airian.
Ta ola egon bear
iru bat illian...
Baiña omen zaudela
umore onian.

Egon bearra dezu
zuk ondo jakiña,
ondo pasatzen egin
zazu alegiña.
Zuri mimoak eiten
ederki dakiña,
sarri izango dezu
zurekin Joakiña.

Okerragoa ere
izan zitekian;
konponduko zerade
iru bat illian.
Orain bertso onekin
agurtu gaitian,
ta bilduko al gera
egunen batian.

Oarra: Agindu bezela, Begoñak eraman zizkion bertso auek,
eta ilusio ederra egin omen zioten. Joakiña ere berekin ze-
goen bertsoak artzean.

Antzuolan, 2002.03.03

Gerbasio Legorbururi omenaldia

Euskalerriko Txistularien alkarteak eratuta, Gerbasio Legorburu txistulariari omenaldia egin zitzaion 2002garren urtean.

Leendabiziko, meza nagusi ederra moldatu zuten elizan; ondoren, Udaletxeko aretoan, Euskalerriko Txistularien ordezkariak Gerbasiori, txistulari bezela egindako lana gogoratuz, ondo merezitako urrezko domiña eman zioten. Gero, pelotalekuan, bazkaria izan zan.

Dena bete zan pelotalekua, eta ambiente ederra izan zan. Txistulari mordoska ederra bildu zan batez ere, eta tartean onenetakoak an azaldu zuten euren nagusitasuna, bakarka eta taldeka. Itz egin zutenak ere izan ziran tartean.

Joxemari Gabilondo eta neri esan ziguten bertso pare bana botatzeko. Eta nik neureak jaso nituen, gogoratu aala.

Gerbasiori:

Aitona onek zure ekintza
ondo dauka ikusia;
bertso batean ezin azaldu
zuk egin dezun guzia.
Txistu ta dantza, zuk izan dezu
oso doai berezia.
Urre-domiña eman dizute,
baiña ondo merezia.

Emazteari:

Beste gauza bat nai nuke nik gaur
emen adieraztia,
lana egiten duten guztiak
argitaratzen astia.
Eta gaur emen ez nuke naiko
au esan gabe uztia:
merezi du, ta zoriontzen det
Gerbasion emaztia.

Ordura arte gorantza guztiak Gerbasioentzat izan ziran, eta nik bere emaztea ere zoriontzeak grazi ederra egin zion jendeari.

Bertoak kantatu ondoren tablautik jeitsi nintzanean, Gerbasio eta bere emaztea etorri zitzaizkidan eskerrak ematera, eta andik puska batera Gerbasioek ekarri zidan argazki eder bat une artan artua, eta ederki ikusten dira biak neri eskua ematen. Nik asko pentsatu gabe norbaitek atera zigun argazkia. Eskerrik asko.



Gurutz eta "Kaxeta" bertsotan.

Susanari omenaldia jubilatua

Biltoki dendako etxeoandre dan Susanari jubilatua omenaldia egin zioten, bazkari eder batekin, jubilatua beragandik artzen duten laguntza aundia eskertuz. Oso billera polita izan zan.

Jubilatu taldeak bertso batzuk kantatu zizkion. Gure seme Jose Frantzisko jubilatuen koruko direktore nola erabiltzen duten, konbidatua izan zan bazkari onetara. Eta nik Susanarekin nola artu-eman asko izan dedan, eta amistade aundia daukagunez, esan zidan bertso pare bat moldatzeko eta berak abestuko zituela bazkalondoan.

Iru bertso jarri nizkion, eta onelaxe kantatu zituen:

Susana maite, urte asko da
ezagutu giñadena,
ta alkarrekin gogoratuaz
joan zaigu denbora dena;
ikusitzen da errian ere
ain gogoko zaituztena.
Gaur artzen dezu jubilatuen
merezitako omena.

Bazkari batez emen zuretzat
dezu egun berezia,
jubilatua goguan dute
zuk egindako guzia.
Zuk izan dezun esku zabala
ongi dute ikusia.
Omen eder au eitten dizute,
baiña ondo merezia.

Jubilatuen elkarte ori
ain goguan daukazu ta,
zenbat ekintza egin dituzten
zuk eskua luzatuta.

Danen eskerrak eman nairikan
ona gu emen bilduta.
Nerea ere artu ezazu,
ondo merezi dezu-ta.

Antzuolan, 2003ko azaroak 22

Ameriketatik etorrira

Urte asko dira gure lagun Migel Sansebastian Amerikara joan zala; eta an amairu urte pasa ondoren etorri zanean, lagun denok egin genion arrera eder bat, eta afari bat ere antolatu genuen bere omenez.

Beti bezela, afalondoan, bertso pare bat kantatu nion, eta gero, andik puska batera, kuadro bat eman genion lagunon argazki eta bi bertso onekin.

Amairu urte pasatu dira
irten zinala erritik;
arrezkerio gogoratutzen
egondu gerade beti.
Berriro ere gure artean
emen zaitugu orraitik!
Ongi etorri esan nai dizut
lagun guztion partetik.

Esan bezela amairu urte
utzi zenula erria,
oso pozikan artu genuen
berriz zendozen berria.
Makiñatxo bat bazter ikusi
eta zera etorria.
Esan eidazu: politena ez
ote da Euskalerrria?

Trekutz elkarteko argazkia

Trekutz elkartearen lokalean arkitzen da argazki bat, bera sortu zanean atera genuena. Eta bertan aurkitzen gera leenbizi elkarte osatu genuen bazkide guztiok argazkian.

Urte asko joan dira ordutik. Urre-eztaiak ere egiñak dira, eta argazki orri begira jarri naizenean konturatu naiz guztietatik neu bakarrik bizi naizela, beste guztiak banan-banan denak il dirala.

Au ikusita pentsatu nuen ondo legokeela bertso bat jar-tzea, eta orain juntako dagoen billoba Pedro Jose Leteri azal-du nion nere iritzia. Onek bere juntako lagunekin egon ondo-ren esan zidan oso ondo pentsatu nuela, eta jarriko zutela argazkiarekin batera.

Bertsoa onako auxe da:

Argazki ori ikusi eta
au nere gogorapena:
urte asko da guk elkarte au
emen sortu genuena;
baiña banaka joan dira denak,
neu gelditzen naiz azkena.
Jauna benetan eskertu nai det
oraindik bizi naizena;
baiña urrena neu izateak
orrek ematen dit pena!

Oarra: Bertso au Jesus Etxetxori eman zioten berarekin koa-dro polit bat egin zezan, eta bai egin ere ark, nere argazki bat bertan zuela. Bere letra politarekin egin zuen, eta oso gauza ederra egin ere.

Trekutz-ekoak agindu zuten koadro baten jarri eta argaz-kiaren ondoan jarriko zutela, eta bai jarri ere dotore asko.

Don Tomas Madinabeitiaren despeirarako egindako ber-
tsoak dira ondorengo auek ere.

Don Tomas, zuri abestu nairik
etorri gera onuntza;
zu izan zera bide ontara
egin gaituena bultza.
Bearrezkua zure lan ori,
aundia zure laguntza.
Lenengo aldiz guk artu degu
Jesukristoren gorputza.

Egin diguzun laguntza orrek
orain neurririkan eztu,
zure aurrean nai genuke
guztiok orain auspeztu.
Lendabiziko eskerrak eman,
gero agurtzeko prestu...
Berriro onuntz etorri arte
gu ezin gintezke aztu.

Gure artetik beltzen artera
orain nai dezu joatea,
alaxe nunbait izango data
Jaunaren borondatea.
Baiña, don Tomas, enkargutxo bat
nai genuke ematea:
ango umiei gure agurra
aruntza eramatea.

Bazuaz, baiña ordezkaria
beste bat emen daukazu,
gure zaindari izango dana,
don Emeterio Sorazu.
Oindik aurrera erri ontako
gure artzaia zera zu...
Ongi etorri maitakorrena
danon partetik ar zazu.

Agur Iñaki

Bertso-kantuan degu
guk afiziua
eta desiua;
gaurko bertso-gaia da
Iñaki iaiua.
Meza, sermoi, dotriña
ta desapiua...
ola ikasi degu
ebanjeliua.
Orain beltzen tartera
Zaire-ra dijua (bir).

Oraintxe urte batzuk
egiñik sarrera
Elosu aldera,
elkar ezagutzeko
izan da aukera.
Aizkora, sokatira
ta asto-karrera...
Sakramentu ta naste,
jo ta su aurrera;
gu denok elkartzeko
kapaz izan zera?

Elizan sermoia ta
eup! “Jauna zuekin”,
guztiok atsegin;
andik kanpora beti
pareko gurekin.
Anai izan zaitugu,
gazte ta zar berdin,
besterik billatzeke,
eun mesede egin.
Azkenean au lana:
guk ordaindu ezin!

Umeakin jolasak,
gazteekin dantza,
otoitz ta arrantza.
Aitona ta amonakin
iñoiz ezin kantsa.
Premia nun zegoen
azkar artu antza,
eta bai laster jarri
motorra arantza.
Egiz maite gaituzu,
ez gera zalantza!

Elosu ta Osintxu
berdin Mekoleta
-iru gaituk eta-
katzuk agirian ta
besteak gordeta.
Gure bizimodua
sastrakaz beteta,
orain uzten dezuna
berdiña ote da?
Denok testitu gera,
ez dek berriketa.

Guk ondo jakin degu
apaizaren berri,
buru, biotz, gerri.
Elkar maite danean
geienbat igarri.
Aitorlekuan pixkat,
tabernatan sarri,
baxoerdien txurritaz
zirrika elkarri...
Zorionean Jaunak
iñuan ekarri.

Gorputzez bezin gogoz
bigun ta zabala,

jator ta leiala;
erria testigu da,
aitortu dezala.
Ire itza: bai ta ez,
gauza dan bezala.
Errekoño ta guzti
erriko misala...
Larreatar Iñaki,
i aiz, i, azala!

Danetan gure lagun,
geure antzekoa,
etxe-etzekoa;
nola izan zan Jesus
Nazaretakoa.
Ebanjeliua bai,
ez nolanaikoa;
pobre ta txikientzat
poztasunezkoa.
Jesus biurtu diguk
gure tartekoa.

Bai omen oa laster
ospa emendikan.
Zai dauzkak Aprikan.
Ez gero guk emendik
botata arrikan.
Ortik aizen artian
Zaire aldetikan,
kontsolatuko gaituk
kantuz errepikan:
“Beltzen tartian ere
orrek eingo dik lan”!

Agur, aixkide zarra.
Joan adi lasai,
etorri ere bai.
Iretzat zabal zeudek

gure ate ta mai.
Egin dekanagatik,
esker on, ongi nai.
Guk eutsiko diegu
ire bide onai:
DANEN GAIÑETIK DENOK
GAITEZELA ANAI.

Oarra: Iñaki Larrea apaizari egindako despeirako bertsoak dira auek. Eta Gurutz Azkarateren eskuiskribuen artean aurkitu ditugu.



Gipuzkoako okinen festan.

Maria Angeles-German

Antzuolako Ondarre auzoko Maria Angeles Lizarralde ezkontzera zijoala Germanekin eta gure parroko don Tomas etorri zitzaidan iru-lau bertso moldatuko al nizkion galdetu/eskatuz, ezkontzakoan berak abestuko zituela-ta. Onelaxe izan ziran bertso oiek.

Bildurikan guraso eta adiskidez,
elkartu zerate gaur ezkontzaren bidez,
gaurtik aurrera senar-emazte egiñez.
Bizi izan zaitezte biok atsegiñez.

Ondo eramateko gauz onena zer dan?
Uskeri bategatik ez astia teman.
Maitasuna alkarri biotzetik eman,
bat egiñik Maria Angeles ta German.

Bizimodu berri bat artzera zoazte,
arantzarik ez dunik ez zazute uste.
Baiña guztiak ondo eraman litezke;
lendabiziko, alkar maitatu zaitezte.

Zorionak, bikote ain zoragarria,
ase dezute gaurtik zuen egarria.
Jauna ere daukagu begira jarria,
bedeinkatutzen zuen bizitza berria.

Udalako Asunen ezkontza

Udala baserriko Asun ikastolako andereño zegoen ezkontzeko garaia etorri zitzaionean; eta bere koñatu Patxik aurreko egunean esan zidan bi edo iru bertso moldatuko al nizkion bere alabak Asunen bodako egunean abesteko. Eta orain ikusiko dezun bezelaxe izan ziran bertso oiek. Oso ederki abestu omen zituen Nereak, esan zidatenez.

Bodak dirala eta
nator ni kantari,
bertsuak kantatuaz
tio ta tiari.
Artu zazute biok
zorion ugari,
ta ondo izan, Asun
eta Pedro Mari.

Gaur alkarri emanez
benetako itza,
berri-berria asi
dezute bizitza.
Gauza obeen billa
guztiok gabiltza;
betiko izan bedi
zuen gaurko ditxa

Orain arte ziñaten
neska-mutil gazte,
eta orain alkarren
senar ta emazte.
umetxo bat edo bi
ekarri, ba, laste;
zuen illobatxuak
zainduko dituzte.

Bertso onekin nai det
agur egitia,

ta ondo dibertitu
dedilla jentia.
Berrero zorionak
nai det ematia...
Agur ba, tio berri,
eta agur, tia.

Ezkontza batean kantatuak

Nere illoba Pedro Jose ezkontuta dago erri onetako andereño dan Maria Eugeniarekin. Onek anaia bat badu Venezuelan, baiña bere emaztea emen aurkitzen da egun auetan.

Maria Eugeniaren aizpa bat ezkontzen da orain, eta onek bere anaia Eloi falta dala-ta, egun orretan esan zidan berak andik abestuko balitu bezela bi bertso moldatuko al nizkion, bere ezkontzako meza orretan abesteko. Nik orrela jarri nizkion bertsoak, eta Maria Eugeniak oso ederki kantatu omen zituen.

Gorputzez ez naiz zuen artean,
urruti nago benetan;
biotzez eta gogoz ordea
naukazute ortxe bertan.
Emaztearen biotzondoan
kabi bat nolatan detan,
bion biotzak zuek zoriontzen
daude gaur une onetan.

Urte askuan zorion ori
biok izan ezazute,
maitasun baten baiezko itza
alkarri eman diozute.
Jesus Mari ta Maria Karmen,
gaur au artu ezazute:
Eloik eskeiñi dezaken dana
biontzako daukazute.

Beste ezkontza bat

Julian eta Begoña, gure koñatuen seme Martzelino ezkondu zan Arrateko elizan, 1982ko iraillaren 11n. Elizkizunaren ostean bazkaria izan genuen bertako Ostatuan. Bazkalondoan giro ederra sortu zan, eta bertso bat edo beste kantatzeko eskatu zidaten.

Bertso batzuek abestutzeko
agindu didate neri,
ni ere ezin egon nindeke
zertxobait esan gaberri.
Lenbizi zerbait esan nai diet
gaur ezkondu direneri:
gure partetik artu zazute
biok zorion ugari!

Illoba maite Martzelino ta
Marije maitagarria,
gaurkoan emen ase dezute
zendukaten egarria.
Bion gainean artu dezute
ezkontzako uztarria;
bere azpian ondo pasatu
zuen bizitza berria.

Alkar maitatuz bizimoduan
ez pentsa danik ain latza;
orain labratu bear dezute
ezkonduaren baratza.
Lorez gainetik ez utzi azten
belar txar eta arantza;
ondo egingo dezutela nik
badadukat esperantza.

Gaurkoan emen gauza illunik
ez dezagun, ba, pentsatu,

atsegiñean egun eder au
bear baitegu osatu.
Bakoitzak berak al duen eran
dezagun bada gozatu;
guztiori auxe opa dizuet:
Egun eder bat pasatu.



Gurutz eta Mariñe Benidormen oporretan.

Daniel eta Isabel

Gure erriko Iñurrigarro Azpikoa baserrian bizi dira Daniel eta Isabel gure koñatuak. Eta beren alaba Mari Karmenek ezkontzako gonbite oiua egin zigunean, bi bertso auek bializkion erantzunez:

Bizimodu berri bat
artzera zoazte;
laster biok elkarren
senar ta emazte.
Jarraitu maitatuzen
orain arte beste,
eta al dan ondoen
bizi izan zaitezte,
gure Jaun zerukoak
nai duen ainbeste.

Egun orretarako
deitu gaituzute;
asko poztu gerala
jakin ezazute.
Erregali txiki bat
or dijoakizute,
borondate onenaz
egiña dezute,
berdin zuek orrela
artzen badezute.

Ondarreko Luis “Arotxa”

Ondarreko Luis “Arotxa” deitzen diotena nere anaia Fer-
nandoren koñatua da, eta noizbait ere ezkondu bear zuela-ta
emazteak eta nik egin genion olako erregali txiki bat: eskuza-
pi batzuk, eta berarekin bi bertso.

Erregali bat egin nairikan
datoz Gurutz ta Mariña,
ezkondu bear zerala eta
agertuz pozik aundiña.
Bibote oiek sikatutzea
sarri zure zeregiña;
poztuko gera zapi auekin
baliatuko baziña.

Poztutzen gera ikusitzean
zu orlako zorionez.
Gogorapen au artu ezazu
zure lagunak geranez.
Gauz txikia da, bai, benetan
danok ikusten dezunez,
baiña sinistu egiña dala
oso borondate onez.

Oarra: Luis “Arotxa” onek bibote aundiak ditu sudur azpian,
orregatik leenengo bertsoan diodana.

Ezkontzako urre-eztaiak

1983ko otsailaren 26an, Manuel Egaña eta Manuela Arritak ospatu zituzten Itziarko elizan euren ezkontzako urre-eztaiak. Euren alaba bat, Begoña, gure seme Patxirekin ezkontuta dago, eta oso lagunak gera, lagun onak ala ere.

Basarrik bere *Atalayan* aditzera eman zuen egun berean *Diario Vasco* izparringian, eta azkenik neronek eskeiñitako bertso au jaso zuen:

Berrogeita amar urte badira
Itziarren gaur bezela
maitasun baten ezkontzan bidez
biok bildu ziñatela.
Zoriondutzen zaitut, Manuel,
baita ere Manuela,
eta oraindik urte askuan
Jaunak gorde zaitzatela.

Or esan dedan bezela ospatu zituzten Itziarko elizan euren urre-eztaiak, ezkondu eta berrogeita amar urtera, eliza berean Manuel eta Manuelak. Euren seme-alaba guztiak beren seme-alabekin osatu zuten sendi ugari eta elkartezko talde zoragarria.

Leendabiziko meza izan zuten, eta meza orretarako eskatu zidaten bertso batzuk moldatzeko, bere alaba Karmenen seme Oskar eta alaba Begoña eta gure billoba Belenek. Meza orretan oso ederki abestu zituzten bertsoak.

Belen:

Urre-eztaiak dirala eta
ni emen nator kantari,
alaitasuna eman nairikan
gaurko egun aundiari.
Eman dezuten frutu ederra
gaur ementxe da ageri;

milla zorion danon partetik,
nere aiton-amoneri.

Oskar:

Ni ere berdin kantari nator
eta umore onian,
aiton-amonak ikusitzean
olako zorionian,
berrogeita amar urte pasa ta
orrelako armonian.
Ta beste asko opa dizuet
bake ta osasunian.

Belen:

Berrogeita amar urte dirala
ezkondu ezkeru joanak,
bitarte ortan izango ziran
sarri neke eta lanak,
baiña alkarren maitasunean
denak ondo eramanak.
Orain artean bezela gorde
zaitzate Itziarko Amak.

Oskar:

Zuen onduan bildu dezute
gaur emen famili dena,
elkartasun au geure artean
gauzarikan ederrena.
Lagundutzeko gertu dezute
emen zuen ondorena,
ta artu ondo irabazita
daukazuten atsedena.

Meza ondorenean bazkari ederra egin zuten denak, armo-
ni ederrean; eta Manuel eta Manuelarentzat izan zan egunik
zoragarriena.

Beste ezkontza bat

Ondarreko Luis Garitano “Luis Arotxa” ezkondu bear zanean, bere boda-egunean abesteko bertso batzuk eskatu zizkidaten. Eta onako iru auek moldatu nizkien, eta bere illoba Nereak oso ederki kantatu omen zituen.

Bertso batzuek abestutzea
orain ondo egongo da,
aspaldi ontan nola dagoan
jarrita orrela moda.
Oso gustura etorri gera
artutzerera zure boda;
danon partetik zoriondutzen
emen gaur zuen illoba.

Zerbaiterako nere osaba
ia ordua zenduan,
zeiñen pozikan gaurko onetan
nagoen zuen onduan.
Nere bizitzan edukiko det
egun au oso goguan.
Suerte on bat opa dizuet
oraingo bizimoduan.

Gaurko onetan bildu dirade
batean zuen biotzak,
biok batera eramateko
egun alai ta mingotsak.
Eta ondoren ekarri beza
frutua zuen ezkontzak;
sendi eder bat egin zazute
Irene ta Luis Arotxak.

Ezkontzarako, berriz ere

Nere anai Juanitoren seme Iñakik ezkondu bear zuela, ba, eta gure erregaliarekin batera bi bertso auek bidali nizkion.

Ezkontutzea dezu
orain erabaki,
lenago egin dunak
nola dan bakadi.
Gaiñera pentsatuzen
zaiguna egoki.
Errotaberrin partez
zorion, Iñaki.

Esku-agertutxo bat
oraintxe dakargu,
orrelako ekintzak
zertxobait bear du.
Gauza txikia dala
zuk ondo dakizu,
baiña biotz onakin
egiten dizugu.

Oarra: Bergarako Santa Marina elizan ezkondu, eta gero Lasa jatetxean bazkari on bat izan genuen, eta egun alai eta bete-betea igaro, 1984ko abenduaren 22an.

Arrateko ezkontza

Gure errain Begoñaren iloba bat ezkondu zan Arrateko Andre Mariaren elizan, 1984ko abenduaren 29an. An kantatzeko bi bertso enkargatu zizkidan, eta orrela jarri nizkion, meza-denboran abesteko.

Guztiak gatoz alaitu nairik
gaur egun zoragarria,
ase dezute gaurkoan emen
zendukaten egarria.
Zeru goitikan Jainkua ere
begira dago jarria,
bedeinkatutzen artzen dezuten
zuen bizitza berria.

Zuen ona da emen guztiok
gaur eskatutzen deguna;
goguan izan bizi guztian
zorioneko eguna.
Gauza guztien gaiñetik izan
alkarrentzat maitasuna,
eta luzaro izan zazute
pakea ta osasuna.

Arrateko eztaietan

Imanol eta Ana Jesus, aurreko bertsoetan aitatzen ditudanak, 1985eko urrian ezkondu ziran, Arrateko Andre Mariaren eliza politean. Gero Salegi jatetxean izan genuen bazkaria.

Egun onetan beste bi boda ere baziran, eta guztiok jaetxe bertan bazkaria. Jendetza ederra bildu giñan Itziarren. Bazkari ona, soiñu ederra eta umore ohea, eta une batean ere ixildu ezin. Une batean deitu zidaten bertso batzuk kantatzeko, asko xaxatu bearrik ere ez nuen edukiko-ta. Gutxi gorabehera onek izan ziran nere bertsoak:

Bertso batzuek bota nairikan
kantari bear det asi,
bazkari ona egin ondoren
nola nagon bizi-bizi.
Geure arteko diran guztiei
esan nai diet lenbizi:
danan partetik milla zorion,
Imanol ta Ana Jesusi.

Beste batzuek ere badira,
eta nik nai nuke segi,
lagunak nola izan graden
bai Gregorio eta ni.
Beste aldetik bildu diranak
Irizar eta Alberdi,
Euskal Errian nolatan degun
makiñatxo bat alderdi.

Zuen biotzak ezkontzan bidez
bildu dira gaur batean,
begiak ere irribarrezka
maitasun bete-betean.
Orain nai degu esan zer dagon
guztion borondatean:

zorionean bizi izatea
Jaunak nai duen artean.

Zuen bitartez aurren batzuek
sortzen badira mundura,
asi bearra dadukazute
euskaldun jator modura.
Erakutsi, ba, gure izkuntza,
erakutsi gure oitura...
Ori egiten ez badezute
gure euskera galdu da.

Gurasuak aitatu nai ditut,
guztiak ez dira errez,
zuek azitzen neke ugari
artuak nola diranez.
Nere aldekuak esango ditut,
ezagutzen ditudanez:
dira Pedro eta Josefina,
Martzelino ta Nieves.

Ezkontzako urre-~~ez~~taiak

Gure lagun maite Avelino eta Eulali ezkontzako urre-~~ez~~-taiak ospatzera ailegatu dira; eta bere sendiarekin egun eder bat pasatzea nai izan dute. Guk ere geure zoriona eman nairik, alako lore-sorta polit bat bidali genien, nere emaztea eta nere izenean bere barruan bi bertso zituela.

Urte batzuk aparte pasatuak dituztela esaten det bertsoan; Avelinok kartzelan pasatutako urteak dira oiek.

Onela ziran bertsoak:

Ezkontzan bidez bildurik pasa
berrogeita amar urte,
naiz ta batzuek aparte ere
pasatuak dituzute.
Maitasunaren garra itzali
gabe eutsi diozute.
Urre-~~ez~~taiak ospatutzeko
zoria badaukazute.

Zuen lagunak gogoraturik
ain egun zoragarrian,
agertzen gera biotz-~~biotz~~ez
zoriondu bearrian.
Eta jarraitu familiakin
denok alkarren urrian!
Egun eder bat pasa zazute
armonia ederrian.

Ibarre baserriko alabaren ezkontza

Gure erriko Ibarre baserriko sendiak, beren illoba bat ezkontzekotan dala-ta, bertso batzuk jartzeko eskatu zidan, beren alabak elizan kantatzeko. Alaxe jarri nizkien lau bertso auek. Meza-denboran kantatu omen zituela esan zidaten, eta oso ederki kantatu ere gainera.

Egun eder ta pozgarri ontan
kantari nazute jarri,
bi biotz emen bildu dirade
maite ziranak alkarri.
Euren gogua ase nai ori
dute onera ekarri;
denok biotzez zoriontzea
nai degu orain bakarri.

Ezkontza onek iraun dezala
bion maitasun bizian,
alkarri itza eman dezute
oso egun berezian.
Maitasun ori gorde zazute
zuen bizitza guzian.
Beste guztiak alperrik dira
ori eduki ezian.

Lendabiziko lengusua gaur
aldare aurrera dator;
berria degun lengusiñari
zerbait esatera nator:
orain artean zeran bezela
jarraitu ezazu jator.
Bizitz eder bat nai dizuegu,
bai Izaskun ta bai Aitor.

Bikote ori Arantzazuko
Aman aurrian jarria,

ase dezute bere aurrian
zendukaten egarria.
Beti goguan izan zazute
ain egun zoragarria,
zeru goitikan onetsi dezan
zuen bizitza berria.



Familiko festa batean peluka jantzita.

Illoba Jesus Romanen ezkontza

1989ko apirillaren leenengo egunean ezkondu zan gure illoba Jesus Roman, nere anaia Fernando eta Rosarioren semea. Nere anaia Migel eta Serapio ziran ezkontza orretan, Elosuko elizan, eta Migelek agindu zidan bi bertso kantatzeko meza-garaian. Onelaxe kantatu nituen:

Bi illoba gaur euren bizitzak
eskeiñi nairik Jaunari;
zorioneko une eder au
alaitu nai det kantari.
Maitasun baten bildu zerate,
ta eutsi zuen itzari,
usai gozozko loreak sortu
zaizkan zuen bizitzari.

Zuen gogoa bete dezute
Elosuko aldarian;
bion biotzak orain batean
emen bildu diranian.
Maitasun orrek iraun dezala
zuen bizitza danian,
eta azkenik milla zorion,
Jesus Roman ta Marian.

Gure illoba Florentinoren ezkontza

Gure illoba Florentino Larrea ezkondu zan egun artan, Arrateko Amaren elizan, bere ama Begoñak eskatu zidan meza denboran kantatzeko bi bertso moldatuko al nizkion, eta neuk kantatzea izango zala ederrena. Agindu nion baietz, eta, ala, ezkondu ondoren, mezaren erdian abestu nituen.

Egun eder au alaitutzeko
astera noa kantari;
bi gazte emen bildu dirade
maite diranak elkarri.
Orain lekua eman deiogun
barnean degun pozari.
Lendabiziko milla zorion
Florentino ta Rosari.

Zoragarria da, bai, benetan,
zuen gaurko ekintza;
maitasun baten eman dezute
gaur biok elkarri itza.
Maitasun ori izan dedilla
etorkizunaren giltza.
Arrateko amak bedeinka beza
ondoren zuen bizitza.

Antzuolan, 1989.07.29

Urre-etzaiak

Egun onetan, 1992ko otsaillaren 8an, zelebratu genuen gure arreba Jesusa eta Paulino Leteren urre-etzaiak. Eguerdian ordubatean meza izan genuen parrokian, gure anaia Migel eta Serapiok emanda. Migelek sermoi polita egin zigun, eta elizkizuna amaitzean denok bazkaltzera joan giñan, Bergarako Zumelaga jatetxera.

Askotan oi danez, bazkalondoan bertsoak kantatu bear zitzaizkiela, ba, eta onako iru auexek kantatu nituen:

Urre-etzaiak dirala eta
astera nua kantari;
ezkondu arren etzaie etortzen
doai eder au askori,
estimatzeko gauzia dala
iruditutzen zait ori.
Denon partetik milla zorion
emaite'izuek biori.

Berrogeita amar urte dirala
biok ezkondu ziñatela,
arrezkerio makiñatxo bat
egun joan diradela.
Asko pozten naiz ikusirikan
ain ederki zaudetela.
Urte askuan gure Jainkuak
orla gorde zaitzatela.

Ta egun onek ondo pasatzen
egin dezagun alegin,
gure bizitza alaiagua
denontzako izan dedin.
Naikua jana eman digute,
eta edan ere berdin;
orain nai nuken gauza auxe da:
denoi daigula on egin.

Oso ederki pasa genuen egun ura ere. Jatetxe ortan bazan beste talde bat ere, Amatiño Telebistan agertzen dana tartean zutela. Beste taldea, berriz, Kikio anai-arrebak, oso famatuak Bergaran. Eta denon artean umore ederra jarri genuen. Ez zan falta izan kantu polit ugari eta baita naiko bertsoa ere.

Bergaran, 1992.02.08



Azkaratetarrak belaunaldiz belaunaldi.

Urre-eztaiak Sasketa baserrian

Antzuolan Sasketa baserriko gure koñatu Juan Frantzisko eta Bibianak euren urre-eztaiak ospatu zituzten; eta an izan giñan kuadrilla ederra.

2000ko maiatzaren 27an, zapatu eguerdiko ordubatean meza ederra izan genuen geure artekoentzat. Danetik izan zan an: eskeintzak, irakurketak, dantzariak, kantuak, bertsoak eta abar.

Bertsoen kontu au neri esan zidaten ea kantatuko nituen pare bat, eta nik, larogeita lau urterekin, baietz agindu nien, eta meza-denboran abestu nituen bertsoak. Ondoren, Leku-berri jatetxean bazkari ederra eman ziguten, eta an ere izan zan naikoa ixkanbilla. Egun zoragarria pasatu genuen, bein bear-eta.

Juan Frantzisko ta Bibianak
denon zorionak artu,
gaur zuen urre-eztaietara
emen bait gera agertu.
Berrogeita amar urte pasa ta
oindik jarraitzeko gertu...
Sortu zenuten maitasunaren
iturria ezta agortu.

Emen guztiok poztutzen gera
zuek ikusiz orrela;
egun eder au ospa dezagun
merezi duen bezela.
Aurrera ere Jaunak zerutik
lagunduko dizutela,
ta nai genuke urte askuan
ondo izan zaitezela.

Antzuolan, 2000.05.27

Zillar-eztaiak

Nere alaba Enkarnitak eurekin batera erriko Kultura etxean ibiltzen zan batek ezkontzako zillar-eztaiak ospatzen zituztela, eta pentsatu omen zuten zerbait egitea. Pentsatu omen zuten erregaliaren barruan ez lirakeela gaizki egongo bertso bat edo beste; eta niregana jo zuten bertso oiek jartze-ko. Onelaxe jarri nituen:

Ezkondu ziñatela
ogeita bost urte,
maitetasun betean
pasatu dituzute,
zuen lagunak beintzak
orla uste dute.
Zorion beroenak
artu itzazute.

Ezkontza egunian
elurra zeguan,
ta egun ura orain
dezute goguan.
Elurra emen ere
nola egin duan,
zillar-eztaietan'e
dezute gertuan.

Kultura ta Arizpin
bildutzen geranez,
etorri nai genuen
zertxobait emanez.
Utsa baiña egiña
borondate onez...
Zorionak, Joxe Migel,
zorionak, Lourdes.

Antzuolan, 2003ko otsailak 11

Maria Joxeparen ezkontzako urre-eztaiak eta Juan Antonioren despeiran jarritako bertsoak dira onako auek, ez naiz gogoratzen urtea eta egunaz:

Berrogeita amar urte ezkondu
ziñatela bete dira;
zuen semea urre-eztaiak
bedeinkatutzen ari da.
Biotatikan bat falta degu
meza donearen maira:
Zeru-goitikan seguru nago
pozez daukagu begira.

Eliza bertan gaurkoan danok
emen bildurik gaude, ta
egun eder bat izan dezagun
biotz barrenan gordeta.
Aurrera denok ondo izatea
eskatutzen degu eta
denon partetik milla zorion
ar zazu, Mari Joxepa.

Juan Antonio, gaur zuri ere
zorion ugari aurren,
ta agur ere esan nai diot
joateko nola dabillen.
Emendik egun gutxira antxe
izango zera Brasillen...
Ondo joan eta berriro ere
etorri zaite lenbaitlen.

Ez zituen idatzi eta kantatu zituen bertso denak bildu Gurutz Azkaratek, ez. Baina zorionak emanenez-eta idatzi eta bidali ohi zituen tarjetak gordetzeko ohitura zuen. Zorion-agur horietako batzuk aurkitu ditugu bere paperen artean, eta bakoitzari bere balioa emanenez, honatx ondorengo auek.

1962ko abuztuaren 5ean
Zabalotar Edurneri – Antzuola

Edurne, gaurko egun onetan
zera berrogeiratuta,
nere ustetan egongo zera
oso pozez zoratuta.
Zure senar ta seme-alabak
guztiak etxeratuta,
guraso batek egun aundia
pasa nai izaten du-ta.
Ala opa dizut famili eta
lagunez inguratuta.

Gurutz eta Mariñek

1966ko abuztuaren 5ean
Zabalotar Edurneri – Antzuola.

Abuztuaren bosgarrenean
lenbiziko ostirala,
gaur osatutzen dira urteak
mundura sortu ziñala.
Jakiñagatik orain artean
gazte aurkitzen zerala,
gure Jainkuak urte askuan
olaxe gorde zaitzala.

Gurutz eta Mariñek

1971ko abuztuaren 5ean
Zabalotar Edurneri – Antzuola

Gaur urtebete ama ziñanda
ta orain, berriz, amona;
egaz egin zun txoritxo arek
ekarria berri ona.
Ta ikusirik billobatxo ori
gaur zeuekin dagona,
gure naiakin indartu nai det
gaurko zuen zoriona.

Sendi guztia alkaturikan
seme-alaba ta umez,
ta bitartian beste bat ere
ia estali da lumez.
Noiz egazka egingo ote dun
amatxo beti ardurez.
Gure Jainkuak gorde zaitzala
pake eta osasunez.
Kruz ta Marinak orixe opa
gaurkuan zure egunez.
Zorionak.

Urte askoan

Nieves Zabalo gure laguna, urte askoan, bere urtebetetzean zoriontzen det bertso pare batekin. Berak ez dakit gor-detzen dituen. Nik ez det bere kopiarik artu; baiña ia urte asko dira bidali nizkiola bi bertso, eta orain agertu zaizkit. Bere urtebetetzearen aurreko egunean ezkondu zitzaion bere alaba Arantza; beti bere ondoan bizi izan zan, eta amak penatxo, alabak aldegituan. Bertsoak onela izan ziran.

Atzo goizian lumaz beterik
kabian zegon txoria,
egaz egin du munduan zear
billatzen bere zoria.
Aspaldi ontan zenbat gauzetan
darabiltzun memoria!
Ama zeranik, poztu zindezke;
zer dezu gauza obia?

Gaur dezu zure urtebetetze,
ez dakit zenbatgarrena...
Gaur ere egun señalatua
atzokuaren urrena.
Arrezkerio lasaiturikan
eukiko dezu barrena.
Opa dizugu izan dedilla
egun zoragarriena.

Gurutz eta Mariñek
Antzuola, 1973.08.05

1977ko abuztuak 5
Zabalotar Edurneri – Antzuola

Aurtengo ontan gaude
biok Donostian,
baiña biotz zati bat
Deskarga ostian.

Lagun zintzuak nola
aztutzen eztian,
gogoratutzen gera
illaren bostian,
zoriondu nairikan
al dan ainbestian.

Aurten ere urteak
zorionez bete,
asko dituzula ta
kejatu ez bate.
Famili guztiakin
ortxe bildu zaite,
ola ezautzen dira
diradenak maite.
Zorionak, Edurne,
eta laster arte.

Gurutz eta Mariñek

1981eko abuztuak 5
Zabalotar Edurneri

Abuztuaren illa,
eguna batian,
zu Antzuolan zaude,
ta gu Donostian.
Nola lagun diranak
aztutzen eztian,
ain goguan zaitugu
gaur egun guztian.

Jaunak urte bat geio
emana dizunez,
pasa zazu alai ta
zoriontasunez.
Ta eskatzen diogu
borondate onez

olaxe urte askoz
izan zu, Nieves.

Gurutz eta Mariñek

1882ko abuztuaren 5ean
Gure lagun maite Edurneri

Abuztuaren bosta,
zeru-goi tristia;
oetik aitua det
txori abestia,
zure berri ematen
aspertzen ez dia.
Zoriondu dezagun
amona gaztia.

Irurogei bat urte
dituzu osatu,
orrela zabiltzala
bearko poz artu.
Zeuden sendian egun
eder bat pasatu,
eta urte askuan
olaxe gozatu.

Gurutz eta Mariñek

Nievesen urtebetetzea

Gaur, 1985eko abuztuak 5, Nieves Zabalo gure lagunaren urtebetetzea degu. Urtero bertso pare batekin zoriontzen det, eta aurtengoak auexek dira:

Abuztuaren bosta
berriro etorri;
bizia zor diozu,
Nieves, egun orri.
Egun onek zinduen
mundura ekarri,
zenbat on egiteko
ta atsegingarri.

Ez bazaude lotuta
grillu edo katez,
beti lanean zabiltz
eta borondatez.
Gaur atsedean zindezke
zeure sendi maitez.
Zorion, ta luzaro
orla izan zaitez.

Zorionak Nievesi

Zabalotar Nievesi bere urtebetetzean bertso pare batekin zorionak ematen dizkiogu urtero. Aurtengo bertsoak onela dira:

Abuztuaren bosta, zer egun aundia.
Modu onetan ia dexente joan dia.
Igaztik aurtenera badago aldia:
azken txoriak utzi dizute kabia.

Naiz ta bakarrik egon senar ta emazte,
gaurkuan txori danak goguan zaituzte.
Gu're aztu geranik etzazula uste,
ta zorionak tarjetan kabitu ainbeste.

Leenengo bertsoan diodan “azken txoriarena”k esan nai du lengo urtetik onuntza ezkondu zitzaielako etxean zeukaten azkenengo semea, eta biok bakarrik gelditu dirala.

Berriz ere Nievesi

1988ko abuztuaren 5ean egin nizkion bertso aukerak Nievesi urtero bezela bere urtebetetzean zorionak emanaz.

Leengo urterako zebillen aitzakia askorekin, eta aurten ere ala moduan ikusten det. Onako bertso aukerak bidali nizkion, animatu zedin.

Abuztuaren bosta etorri
zaigu gogoratutzeko;
gogo bizia biok daukagu
gaur zu zoriondutzeko.
Ta zer litzaken gaurkuan zuri
gogo onez bialtzeko:
indizio bat golpe-golpetik
gaitz ori sendatutzeko.

Zorionean pasa ezazu,
Nieves, gaurko eguna;
sendi danakin, eta barrendik
atera alaitasuna.
Beste urte bat badatorkizu
gaurtik asten zaizuna,
ta urte onek eman daizula
lenguak kendu dizuna.

Aurten ere

Bai, aurten ere gure lagun Nieves, aspaldiko moduan, bertsoz zoriondu degu. Aspaldian gaixo dago, eta orregatik bere gaixotasuna aitatu bear.

Urte bat geiagotan,
Nieves, natorkizu;
zer motibogatik
zuk ondo dakizu.
Beste urte bat geio
bizkarrera zaizu.
Modurik onenean
pasatu ezazu.

Zorion beroena
gaur dizugu opa,
dezun gaixotasuna
gorputzetik bota,
itxaropena beti
bizirik dago-ta,
bukatu gaur eguna
ondo igarota.

Zorionak, Belen

2003ko abenduaren 22an gure billoba Belen zoriontzeko bidali nion bertsoa:

Aillegatu zera gaur
ogeita amarrera,
baiña oraindik ezta
bukatu karrera;
zure alforja bota
orain bizkarrera.
Zorionak, ta segi
olaxe aurrera.

Begoñak 50 urte

Gure Begoñari, 50 urte bete zituen egunean, 2003ko otsailaren 4an, bidali nion bertsoa.

Aurten ere, Begoña,
emen natorkizu,
zer motibogatikan
zuk ondo dakizu.
Nola gaurko egunez
jaiua zeran zu,
berrogeita amar urte
gaur bete dituzu.
ZORIONAK, ta ondo
pasatu ezazu.



Gurutz gaztetan,

AMAIERA

Gurutz Azkarateren biloba Belenek hitzaurrean agindu digun ipuin honekin amaituko dugu liburua. Aittattak eta amamak maitasunez kontatutako ipuinen baten arrastoa izango da, agian, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak antolatu eta 1990eko *Lehenengo Urruzuno literatur saria* irabazi zuen ipuin hau:

AMONA, EGIA OTE?

Urteak aurrera badoazkit eta bizitza beste era batera ikusten dut orain. Mundu honetan mendea betetzeko hogeita bi urte falta zaizkit bakarrik, eta badakit aurki zerraldo batean sartuko nautela, eta hemendik urte batzuetara inor ez dela nitaz oroituko.

Lehen, gaztea nintzela, lagun asko ibiltzen ginen elkarrekin, baina poliki-poliki gutxitzen joan gara eta orain bakar batzuk besterik ez gara geratzen.

Noiz iritsiko ote zait niri horietako zerraldo ilun batean sartzeko ordua? Ni izango al naiz hurrengo? Horrelako galderak egiten dizkiot nire buruari, baina ez dut inolako erantzunik aurkitzen.

Urteak badoaz aurrera eta laster iritsiko zait inork desiratzen ez duen momentua. Ez dut momentu horretan pentsatu nahi, baina ezin dut nire burutik pentsamendu hori baztertu. Tripako minak sortzen dizkit zerraldo hitza entzuteak.

Gaur goizean hil kanpaiak entzun ditut. Nor izango ote da?, galdetu diot nire buruari. Beharbada, istripuz hil den norbait izango da; baina kalera hurbildu naizenean nire gaztetako lagun bat dela esan didate. Bat gutxiago, pentsatu dut.

Arratsaldean nire laguna zenaren elizkizunetara nindoala emakume batzuen albotik pasatzerakoan, zera entzun dut;

-Urteak ere bazituen-eta gizajoak...

-Bai, eta urte horiekin zer itxaron daiteke zerraldoan sartzea baino?

-Gainera, urte horiekin eta gizon horrek zuen osasunarekin, karga bat besterik ez zen bere familiarentzat.

-Bai, nik ere horixe bera uste dut. Bere alabak beti bere gainean ibili behar zuen, eta gainera, arraindegian nengoela, norbaitek esan duenez burua ere ez omen zuen oso ondo...

Hau entzun eta begiak malkoz bete zaizkit. Nire familiak berdin pentsatzen al du nitaz? Nire itxaropen bakarra ere zerraldoan sartzea al da? Bai, noski; zer itxaron dezaket hori izan ezik? Nire osasuna ezin hobea da, baina ditudan urteek ez didate barkatzen.

Momentu batez, denbora geratzea gustatuko litzaidake eta berriz gazte izan, bizitzako momenturik ederrenean egon. Momentu batez besterik ez, baina hau ezinezkoa da. Orain oroitzen bakarrik gelditzen zaizkit, baina oroitzen hauetaz pentsatzen hasten naizen bakoitzean ene buruan beste irudi batzuk agertzen dira. Neure burua ikusten dut, lehenengo nire bizitza guztia agertzen da pelikula bat balitz bezala, eta gero, han agertzen naiz aurpegi zuria baino zuriagoaz eta zerraldo baten barruan begiak itxirik. Hilik nago! Zerraldoa ixten dute, ni barruan uzten nautelarik. Ez, ez, oihukatzen dut, ezinezkoa da. Bizitza eder bat izan dut eta orain horrela bukatu beharra ezinezkoa iruditzen zait, sinesgaitza.

Nik neuk bota ditudan oihu horiekin berriz ere mundura itzuli naiz. Pentsamendu hauek geroz eta gehiago datoz nire burura, saiatzen naiz hauek deusezten baina ezinezkoa da, alferrikakoa. Ezin dut sinetsi, gaur hemen nire bizitzaz pentsatzen eta bihar, beharbada, zerraldo ilun eta hotz batean, lur azpian eginiko zulo batetan egotea posible izango litzatekeenik. Inor ikusi gabe, inorekin hitz egin gabe, barrerik egin gabe...

Gaztea zarela ez zara konturatzen bizitzak duen gauza zoragarriez; baina gero, zahartzen zarenean eta hiltzeko gutxi falta zaizula ikusten duzunean, zera pentsatzen

duzu: Oraingo gazte hauek ez dira gure garaietakoak bezalakoak, gu askoz hobeto ibiltzen ginen, nahiz eta ez eduki orain duten aurrerapenik, ni orain gaztea baintz.... Baina ez, nire gaztaroa igaro zen eta nire bizitza ere bere bukaerara iristen ari da, eta orain itxarotea gelditzen zait bakarrik.

Gaua iritsi da. Ezin dut lorik egin. Ilunpeak beldur handia ematen dit eta lo hartzean are gehiago. Lo hartzen badut beharbada bihar ez naiz esnatuko eta gaur gauean lo hartzen dudan momentutik ez dut gehiago ene etxea ikusiko, ez ene herria, ezta gehien maite ditudan pertsonak ere.

Baina atzo gauean lo hartu nuen eta gaur goizean oso goiz esnatu naiz. Eguzkia irteten ikusi eta berriz ohean sartu naiz, ez baitut oso ondo sentitzen neure burua, ibiltzerakoan hankak oso pisutsu sentitzen ditut eta erdi zorabiatuak aurkitzen naiz. Orain arte, urte asko nituelakoan nengoen, baina osasuna ondo. Orain, berriz, urte asko izateaz gain osasuna ere ahultzen hasi zaidala uste dut.

Nire barneak zerbait esan nahi dit. Ez nago zeharo lasai. Heriotza gertu dagoela nabari dut. Gaztetan, jende guztiak bezala izan nituen nire gorabeheratxoak, baina izan dudan bizitzaz ezin naiz kexatu, beste askok baino bizitza luze eta hobea izan baitut.

Txikitan beti jakin nahi izan nuen hiltzeak edo betirako lo hartze horrek zer esan nahi zuen. Hil eta gero zer gertatuko zitzaidanaren kezka izaten nuen. Gogoratzen dut, egun batez ene amonari galdetu niola hiltzeak zer esan nahi zuen, baina berak erantzun zidan denbora iristean jakingo nuela. Orain badakit zergatik erantzun zidan amonak era horretan. Uste dut berak ere beldur handia ziola hiltzeari. Amonaz pentsatzen hasten naizenean konturatzen naiz, nik galdera hura egin nionean bera jadanik oso zaharra zela, eta usten berak garai haietan, nik orain ditudan pentsamendu berdinak edukitzen zituela. Ni oso gaztea nintzen, eta ez naiz amonak esandako gauza guztiez gogoratzen, baina sekula ez zait

ahaztuko berak hartu zuen poza 80 urte zituela, herrian zortzigarren hil kanpaia entzun zuenean. Nik ez nuen ulertu amona zergatik poztu zen kale-ertzean bizi zen Balentina hil zenean; baina arratsalde batez, nire amak bere magalean eseri ninduen eta ipuin bat balitz bezala kontatu zidan nik uler nezan. Gauza zera zen: gure herria oso txikia zen; bertan, 7 edo 8 pertsona hiltzen ziren urtean. Horregatik, berak 8.aren hil kanpaia entzun zuenean eta hil zena nor zen kontutan hartu gabe, sekulako poza hartu zuen, bere ustez eta ohitura zen bezala, ez baitzen inor gehiago hilko urte horretan, eta bera urte bat gehiagoz biziko zen.

Baina orain gauzak aldatu egin dira. Orain ezin da kontutan hartu zenbat hiltzen diren, horren ondorioz jadanik urte horretan hil behar dutenak hilda daudela jakiteko. Herria, industria dela medio handitzen joan da. Lehen familia batenak ziren lur sailetan, orain 400 pertsonak egiten dute lana, eta 400 pertsona hauek herrian gelditzen dira bizitzen. Honela, herri txiki eta lasaia, etxe luzez beteriko herri handi eta zaratatsu bihurtu da. Bertan, kotxeak ere gehituz joan dira eta istripuz hiltzen den jendea geroz eta gehiago da.

Nire gogoetak alde batera utziz, ordulariari begiratu diot; honek, berehala, hamar kanpaikada jo ditu. Hamarrak dira. Hau da ni egunero jaikitzen naizen ordua, baina ez naiz esnatu naizenean baino hobeto sentitzen eta, gosaritarako gogorik ere ez dudanez, ez naizela jaikiko erabaki dut.

Beharbada, ez zait ezer garrantzizkorik gertatuko, baina nik zerbait txarra dudan susmoa dut.

Nire azken orduak direla badakit, baina hau ezin du inork aldatu, eta beldur pixka bat ematen dit, baina orain arteko guztiak pasatu dira hemendik eta ni ez naiz gutxiago izango.

Orain dela urte askotako gauza asko ondo gogoratzen dut eta atzo zer gertatu zitzaidan ez dut gogoratzen, burua galtzen hasia naizela uste dut. Nire indar guztiak minutuz minutu ahulduz doaz eta nire ikusmena ere bai.

Badakit gaurtik ez naizela pasatuko, hau da, biharko eguna ikustera ez naizela iritsiko, baina daukadan tristura bakarra, bakarrik hil beharra da, nire alaba ere ez baita nire ondoan aurkitzen.

Lo hartu dut. Esnatu naizenean eta eguzkiak ematen duen berotasunagatik eguerdia dela esango nuke. Ordulariari begiratu diot nire usteak baiesteko. Ez dut oso ondo ikusten, baina ordu bata dela iruditu zait. Begiak ahultzen hasi zaizkit. Leihora hurbiltzen saiatu naiz, baina egin ditudan ahalegin guztiak alferrikakoak izan dira. Nire hankek ez dute nire buruak agindutakoa bete nahi, eta ez dira ohetik 3zm ere mugitzen.

Bizitzari agur esateko edo, nire iraganaren zerbait gogoratzen gustatuko litzaidake, baina nire buruak jadanik utzia dio lan egiteari, eta ezinezkoa gertatzen zait ezer gogoratzea. Begiak itxi eta ahalegin guztiak egin ditut nire buruan zerbait ager dadin, baina nahiz eta 78 urte eder bizi izan mundu honetan ez da ezer agertzen ene buruan. Orain dela urte batzuk norbaitek esan balit hau gertatuko zitzaidala ez niokeen sinetsiko.

Begiak ireki ditut, baina itxita bezainbeste ikusten dut, hau da, ezer ez. Sekulako ilunpean murgildurik aurkitzen naiz, eta besoak eta hankak lo baleude bezala sentitzen ditut.

Hau al da hiltzea, amona? Iritsi al zait hiltzea zer den jakiteko ordua?

Mundu honetan pertsona askok lagundu nau eta nik ere pertsona asko lagundu dut. Pertsona askok maite izan nau, eta nik ere pertsona asko maite izan dut, baina ez nuen uste azken momentu hauetan horren bakarrik egongo nintzenik. Gogorra egiten zait benetan hau onartzea. Beti jende artean ibili izan naiz, nire etxeko ateak beti zabalik egon dira zetorrena zetorrela, eta nik ere beste etxeetako ateak zabalik aurkitu ditut beti. Eta orain nik zera galdetzen dut: Non da ni maite izan nauen jende guztia? Non dira nire etxera kartetan jolastera edo eta nirekin hitz egitera etorri izan diren nire lagun mai-teak? Ez al dute etorri behar ni agurtzera? Ez, noski,

bakoitzak bere lanean jardungo du eta inor ez da nitaz oroituko. Zergatik oroitu nitaz? Hemen egon ziren azken aldian ezin hobeto bait nengoen.

Momentu batez argi-izpi bat ikusi dut, eta gero, berriz, aurretik aurkitzen nintzen iluntasunean murgildu naiz. Jadanik ez dakit non ditudan ene hankak eta besoak.

Arratsaldeko laurak jo dute. Ni ez naiz ohetik mugitu, baina nire alabaren hanka-hotsak entzun ditut eskaile-rak igotzerakoan. Nire logelako atea ireki du eta aurpegi-ko kolorea ere aldatu zaiola uste dut. Logelan sartu eta hiru edo lau minutura entzun ahal izan dut berak esan ahal izan duena. Ez da ondo ulertzen, baina bihotz barrenetik atera zaizkion hitzak izan dira: Aita, ez, ez, zergatik? Aita...

Nire ondoan eseri eta nirekin egon da ordu laurden bat inguru, nire ondotik mugitu ere egin gabe. Asko maite nauela esaten aritu zait. Nik ere asko maite dudala esatea gustatuko litzaidake, baina hilik nago eta ezin dut ezer esan. Zergatik? Zergatik ezin diot ezer esan nire alabari? Nire alaba da, ezta?

Poliki-poliki jaiki eta aterantz alendu da, segundo batez ere niri begiratzea utzi gabe. Behera joango da, behean baitaukagu telefonoa eta, segur aski, apaizari deituko dio berri emateko.

Nire usteak egiak izan dira, hamar minutu baino, lehen hil kanpaiak entzun ahal izan baitira Santa Ana elizako kanpandorretik. Ziur aski jendea dagoeneko niri buruz hitz egiten hasia izango da: “Gizajoa” esango du norbaitek, “bai, gizajoa” erantzungo dio beste norbaitek.

Atzo nire gaztetako lagun bat hil zen, eta nire galdera zera izan zen: Nor izango ote da hurrengoa?

Ez dut asko itxaron behar izan galdera honi erantzuna aurkitzeko, ni izan naiz hurrengoa. Ni izan naiz aurtengo zortzigarrena. Sekula ez dut amonaren teorian sinetsi, baina ala eta guztiz ere, beti kontatu izan dut herrian zenbat hiltzen diren. Batek baino gehiagok barre

egingo du hau entzutean, eta nik neuk ere tontakeria bat dela uste izan dut beti, baina herrian zortzigarren hil kanpaia entzuten nuenean nolabaiteko lasaitasuna sentitzen nuen neure barrenean.

Belen Azkarate Egaña

